

**The Little Kiss taldea**  
Mallorcatik etorrira  
3.60 aretoan jo dute  
KULTURA, 22



**Aloña Mendi taldeak lidertza hartu du**  
Mondrak eta UDak ez dute partidurik jokatu eguraldiarengatik  
KIROLA, 12

**Einstein antzezlan**  
Umeak zientzialari egin ziren Arrasaten  
KULTURA, 20-21



# ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko urtarrilaren 30a • 2. urtea • 87. zenbakia • 0,90 euro

## UNE 150301 ziurtagiria jasoko du gaur Fagorrek

*AENOR elkarteak lehenengoz emango du sari hori eta Fagorren Garagartzako garbigailuek jasoko dute*

Ecodiseño deritzan sisteman oinarritutako produkzio sistema erabiltzen dute Garagartzako Fagorren, garbigailuek egiteko. Horrela erabaki zuten lantegia ireki orduko eta garbigailuek era horretara egiteagatik berari emango diote UNE 150301 ziurtagiria munduan lehenengoz. Agiri horrekin diseinutik hasi eta produktuaren garapen prozesu guztian ingurumenarekin errespetuzkoak direla ziurtatzen dute Fagor Garagartzako aro berriko garbigailuek.

Sari banaketa Arantzazun izango da gaur eguerdian. Gandiaga Topagunean izango dira, Fagorreko ordezkariak, AENOREko presidentea eta Juan Jose Ibarretxe lehendakaria. **6**



JOSETXO ARANTZABAL

**MUNDUAN LEHENENGOZ**  
AENOR da lehenengoa munduan UNE 150301 agiria ematen eta,aldi berean, Fagor Garagartzako saria jasotzen

**EKITALDI OFIZIALA GAUR**  
11:45ean izango da emate ekitaldia, hainbat agintariren aurrean, Gandiaga Topagunean

**INGURUMENA ZAINDUZ**  
Agiriak ziurtatu egiten du Fagorrek ingurumena zaintzen duela produkzio prozesu osoan, baita diseinuan ere

**2001ETIK LANEAN**  
Garagartzako lantegia 2001ean hasi zen lanean eta laster merkaturatuko dira aro berriko garbigailuek

## Argia Saria ibarreko bi laguni

*Fermin Etxegoien eta Unai Loidi saritu dituzte*



ARTXIBOA

Fermin Etxegoien.

Egubakoitzean banatu zituzten Argia Sariak, eta tartean, ibarreko bi lagun saritu dituzte. Fermin Etxegoien oñatiarrari Prentsa arloari dagokion Argia Saria eman zioten, *Berría* egunkarian idazten duen *Ekograftiak* izeneko telebista kritikarengatik.

Telebistari dagokion Argia Saria, berriz, ETBko *Postdata* saioari eman diote, eta bertan lan egiten du Unai Loidi aretxabale-

tarrak 2002. urteko urritik. Aurretik Hitzetik Hortzera eta Bertatik Bertara saioetan lan egindakoa da Loidi. Biak hala biak, oso pozik daude sariarekin. **22**

## Elurragatik argirik ez Elgetan

*Iberdrolak 15 ordu behar izan ditu matxura konpontzeko* **4**

## Gaur hasiko da autobusa Gatzagan

*Astean barrena funtzionatuko du zerbitzuak; asteburuetan ez* **8**

## Debagoienak arrakasta izan du FITUR azokan

San Inazioa jaino zela 450. urte betetzen direla eta, *Ignaziotar Lurraldea* aurkeztu zuten Madrilen, tartean Arantzazu eta ibarreko XVI. eko aberastasuna. **2-3**

## Labegaraiak erosteko eskaintza

*Kanadako enpresa batek Arcelor erosi nahi duela adierazi du*

Arcelor siderurgia enpresarena da Bergarako Labegaraietako enpresa ere. Ia 300 langile ari dira Bergarako egoitzan, Aceralia Arcelor taldean sartu zenean baino gutxiago. Kanadako enpresak egin duen erosketa eskaintzaren kontra agertu dira enpresako ordezkari sindikalak. **6**

**ASTEAZKEN HONETAN  
ZABALIK ARRASATEN  
SALMENTA ETA TAILER ZERBITZUA**

Musakola auzoa z/g (Roneo ondoan) ARRASATE  
Tel.: 943 77 01 44

# GEUREAN

- Kepa Urrea Aretxabaletako presoak 14 urte bete zituen atzo kartzelan | 6
- Itxi egingo dute gaur Mojategi eta Arruena arteko ibilbidea, Arrasaten | 8



Juan Carlos Alonsok umeez eta beldurrezko ipuinen onuraz jardun zuen Arrasaten | 7

## DEBAGOIENA FITUR TURISMO AZOKAN

FITUR AZOKA | EGUAZTENETIK DOMEKARA IRAUN DU TURISMOAREN AZOKAK MADRILEN

# Hasi berriak izan arren, eskaintza duina egin du Debagoienak

*Landa turismoaren eskaintza da Debagoienak FITUR azokan bultzatu duena*

*Arantzazu ere bere baitan hartzen duen 'Ignaziotar Lurralde' aurkeztu dute turismo azokan*

Marijo Deogracias

Atzo amaitu zen Madrilén, turismoaren gainean munduan egiten den bigarren azokari garrantzitsua. Debagoiena ere izan da han, bere turismo eskaintza egiten. San Inazioaren urteurrenaren aitzakiaz *Hiru tenpluen* proiektuak leku garrantzitsua izan du Debagoieneko standean. Horrekin batera, Mundumira azoka eta ibarreko naturari lotutako turismoa bultzatu dute FITUR azokan gure ordezkariak. Han izan diren ibarreko ordezkariak adierazi digutenez, "gure aberastasuna ezagutzera ematea da garrantzitsua eta gure aberastasuna natura denez, horri eman zaio garrantzia".

Turismoaren inguruan egiten den mundu mailako bigarren azoka izanda, "Debagoienaren dako hor egotea gauza handia da", adierazi digu Juan Carlos Ben-

goa Eskoriatzako alkateak. Azokaren lehenengo bi egunetan izan ziren FITURen ibarreko udal ordezkariak eta gustura itzuli dira guztiak ere. "Inpresio oso ona ekarri dugu. Jendea eskuorriak jasotzera hurbiltzen zen eta jende asko aritzen da galdeka", azaldu digu Bengoak. Debagoiena turismoa bultzatzen orain hasi dela igartzen dela onartu digu Eskoriatzako alkateak, "beste lurralde batzuk aurreratuago daudela igartzen da; hala ere, Debagoienaren papera FITUR azokan nahikoa duina izan dela azpimarratuko nuke".

**"Debagoiena han egotea gauza handia da ibarrarendako"**



Debagoieneko turismo eskaintza Gipuzkoako standaren ondoan kokatu dute FITURen.

### IBILBIDEAK INDARTZEN

Eusko Jaurlaritzak iaz Arrasaten egin zen Mundumira jaialdi-azokan aurreratu zuen, ibilbideak gure herriaren aberastasan turistikorik garrantzitsua direla eta horiek indartu beharra dagoela. Zentzu horretan, urtebete darama Jaurlaritzako

**"Ibilbideak berritu eta indartu beharko ditugu eta landa turismoa indartu"**

turismo sailak ibilbide sarea aztertzen eta nola indartu beharko litzatekeen proiektatzen. Debagoieneko natura eskaintza ere hortxe kokatzen da, Ines Aldai Arrasateko kultura zinegotziak adierazi digunez: "Kontua ez da ibilbide berriak egitea, baizik eta ditugunak berritu eta indartzea. Horrekin batera, landa turismoa potentziatzen jarraitu behar dugu. Azken baten, herri bakoitzak dituen baliabideak saldu behar ditu; horri eman behar zaio balio turistikoa".

Debagoienean 21 PR ibilbide daude eta guztiak egon dira erakusgai FITUR azokan. Horrez

gainera, hainbat GR ere ibarretik pasatzen dira, tartean, Loiolako santutegitik ateratzen dena eta Arantzazuraino doana. Zentzu horretan, eta San Inazioaren jaiotzaren 450. urteurrena aprobetxatuz, *Ignaziotar Lurralde* ekimena erakutsi du Debagoienak aurtengo berritasun lege FITUR azokan. Ekimen horrek Hiru tenpluen eskaintza turistikoa sendotu nahi du, eta Jaurlaritzak ere berau erabili du Euskadiren eskaintza turistikoa saltzeko FITURen egin duen aurkezpenean. Otsailen zehar emango dituzten ekimen honen zehaztasun guztiak.

## San Inazioaren jaiotzaren urteurrenaren aitzakian, turistak Arantzazura

Natura, ondarea, gastronomia eta kultura uztartzen ditu *Ignaziotar Lurraldeak*. Loiola, Zumarraga eta Arantzazu batzen ditu turismo eskaintza horrek. Orain arteko Hiru Tenpluen Ibilbidean oinarritzen da eta San Inazioaren jaiotzaren 450. urteurrenaren aitzakian, indartu eta osotu egin dute eskaintza. FITURen gure eskualdeko turismo eskaintzaren erakuslerik garrantzitsua izan da, hortaz, Arantzazu.

## Mundumiraren bigarren azoka Oñatin egingo da aurten eta FITURen horren berri eman da

Arrasaten egin zen Mundumiraren gaineko informazioa erakutsi dute FITURen eta aurreratu egin dute Oñatik hartuko duela azoka horren bigarren aldia. Oraindik azokak erakutsiko dituen guztiak lotu barik dauden arren, otsailaren 3an eskualdeko gobernuz kanpoko erakundeekin batzarra egingo dutela azaldu digute Oñatiko udal ordezkariak, ibarreko GKE-ek egiten duten lanaren berri ere eman nahi dutelako azokako egunetan, maiatzean.

## Arantzazuko turismo bulegotik ia 21.000 bisitari igaro dira 2005. urtean

Debagoieneko turismo sailak datu guztiak batu ez dituen arren, badakigu Arantzazuko turismo bulegoak esaterako, ia 21.000 lagunengatik bisita izan duela 2005eko urtean zehar. Ana Eriz Mankomunitateko turismo arduradunak azaldu digunez, "kontuan hartzeko zenbakia da, batez ere Arantzazuko turismo bulego asteburuetan, jaiegunetan eta oporraldietan bakarrik egoten delako zabalik". Datorren hilean erakutsiko dira turismoaren datuak.

DEBAGOIENA FITUR TURISMO AZOKAN

## Ibarreko ordezkariak Madrilen izan ziren turismo azoka bisitatzen

M.D.

Erakundeetako ordezkariak bisitan izan ziren egunean FITUR turismo azokan. Arrasateko udal ordezkari Ines Aldai, Eskoriazako udal ordezkari Juan Carlos Bengoa, Oñatiko udal ordezkari Joxe Fernandez eta Mankomunitateko kultura zinegotzi Ernesto Murgiondo izan ziren FITUREn.

Azpimarratu digutenez, "izugarria izan da Debagoiena horrelako azoka erraldoi baten ikusi izana, eta aurrera begira, ibarrak duen natura aberastasuna bultzatzen jarraitu beharra daukagu". Ines Aldai Arrasateko kultura zinegotziak azaldu digunez, "landa turismoa potentziatzen jarraitu behar dugu; hori da gure aberastasuna eta horri eman behar diogu, batez ere, balio turistikoa".

### LEHENENGO EGUNEAN BISITAN

Turismoaren inguruan munduan egiten den azokarik garrantzitsuenetakoa da FITUR, eta gure ibarreko ordezkariak azokaren lehenengo bi egunak egin dituz-



FITUR azokan izan dira Mankomunitateko ordezkariak.

te Madrilen. Lehenengo egunean Jaurlaritzako ordezkariak Erkidegoan iaz izan zen turismoaren gaineko datuen berri eman zuten. Jakin ahal izan dugunez, Debagoieneko turismoaren datuen arabera, Arantzazuko turismo

bulegotik ia 21.000 lagun igaro ziren 2005. urtean. Mankomunitateko turismo arduradunek adierazi digutenez, datu pozgarriak dira, kontuan izanik turismoa bultzatzea berri samarra dela Debagoienean.

ANA ERIZ | MANKOMUNITATEKO TURISMO ARDURADUNA

## "XVI. mendeko ondarea eta ibilbideak ditugu saltzeko"

M.D.

Eguaztenetik Madrilen izan da Ana Eriz, Debagoienak turismo azokan jarritako erakusmahaiaren. Harrera oso ona izan dela aitortu digu.

### Nolako balorazioa egiten duzu?

Oso positiboa. Profesionalen aldetik harrera oso ona izan dugu eta zapatu-domekan, publiko orokorrak ere interesa erakutsi du. Azpimarratzekoa da *Ignaziotar Lurraldea* markak interesa piztu duela bidaia agentzia eta turismo arloko profesionalen artean. **Zer saldu nahi izan da *Ignaziotar Lurraldea* eskaintzarekin?**

Orain arteko Hiru tenpluen turismo eskaintza sendotzeko sortu dugu. San Inazioaren jaioztaren 450. urteurrenean, turismo erlijiosoa eta XVI. mendeko ondarea bultzatu nahi dira. Gure eskualdeak XVI. mendean erakusgarri asko ditu eta horien guztien berri ematen du turismo marka berri horrek. Hala ere, otsailean aurkeztuko ditugu marka berri honek bultzatu nahi



GOIENKARIA

duen hiru eskualdeetako turismoa dinamizatzeko garatuko dituen ekimenak. FITURkoa lehenengo erakustaldia izan da. **Horrez gainera, zer gehiago eskaini du Debagoienak FITUREn?**

Eskualdearen ikuspegi orokorra ematen dugu. Alde batetik, *Ignaziotar Lurraldea* markak berak bere baitan hartzen dituen lekuen berri ematen dugu; beste alde batetik, gure inguru naturala aprobetxatuz, ibarrean ditugun 21 ibilbideen berri ere ematen dugu; eta, azkenik, hotel eta jatetxeak ere iragartzen ditugu.

JOXE FERNANDEZ | OÑATIKO ALKATEORDEA

## "Gure baliorik garrantzitsuenak daukagun natura da"

Marijo Deogracias

**Joxe Fernandez FITUREn izan da, aurten lehenengoz. Aitortu digunez Debagoienak turismo azokan izan duen kokalekua ezin hobea izan da, pabilioiaren erdi-erdian.**

### Zelako inpresioa ekarri duzue?

Hasteko, Debagoienaren erakusmahaiak FITUREn izan duen lekua azpimarratuko nuke. Leku oso egokian izan gara: pabilioiaren erdi-erdian. Fisikoki leku aproposa izan da.

Inpresio oso positiboa ekarri dugu. Inguruko eskaintza ikusgarria izan da eta oso garrantzitsua deritzot horrelako jardunetan aritzea geu ere. Gure bailara oraingo, poliki-poliki ari da turismoa lantzen, baina badaukagu zer erakutsi geuk ere. **Zer erakutsi du Debagoienak, inguruko eskaintza ikusita?**

Jakina da bakoitzak bere berezitasuna duela eta balora-

ntzea oso subjektiboa izaten da. Guk nahi duguna da gure inguru naturala erakustea. Gure baliorik garrantzitsuenak daukagun natura da eta horrekin batera, 3 tenpluen proiektua ere erakutsi dugu. Gainera, aurten San Inazioaren urteurrena da eta bereziki bultzatu da hiru eskual-

**"Gurera datozen turistek kalitateari garrantzi handia ematen diote"**

**"Landa turismoa gehituz doan turismoa da. Natura turismoan eragin behar dugu"**

deren artean gauzatu den proiektu hori. "Gipuzkoa zein berde" proiektua ere erakutsi da eta hor ere Debagoienak badauka lekua. Mundumira jaialdiari ere lekua egin diogu FITUREn. Jendeak horren gaineko informazioa izan dezan materiala erakutsi dugu Madrilen.

### Eta jendea zer ikusteko asmoz gerturatzen da Debagoieneko standera?

Dagoen informazioa jaso egiten du. Nik jaso nuen inpresioa izan zen gurera datorren jendea gustura geratzen dela eta standera hurbiltzen denak nolabait ezaugarriak baduela eskualdeaz. Kalitateari garrantzia ematen diote eta hori gurean segurtatuta dago.

### Baliteke goitzko izatea oraindik, baina nola doa aurten Oñatin egingo den Mundumira azoka-jaialdi hori?

Hainbat gauza oraindik lotzeko daude, baina proiektu jakin batzuk dagoeneko hasita daude. Esaterako, otsailaren 3an, ibarreko gobernu kanpoko erakundeekin batzarra egingo dugu euren lanaren berri eman nahi delako Mundumiran. Protagonismoa emango zaio euren lanari eta parte hartu nahi dutenei zabalik egongo da.

### Nolako izan da Debagoieneko turismoa iaz?

FITUR azokari begira Jaurlaritzak eman ditu Euskadiko turismoaren gaineko datuak; ez ordea eskualdekoa. Hala ere, eta Gipuzkoako turismoari begira



J.F.

tuta, guk ikusten dugu landa turismoak garrantzi handia daukela. Orokorrean zabalduz doan turismo mota dela ikusi da eta naturaren inguruko turismo horretan gure bailarak ere

garrantzi handia dauka. Arlo hori bultzatu beharra daukagu, baina ez bakarrik administrazio mailan. Sektore pribatuak ere hainbat proiektutan parte hartuko du.

ASTEBURU HOTZA | EGUBAKOITZEAN EGIN ZUEN ELURRA ETA EGINDAKO HOTZAK ELURRA URTZEA ATZERATU DU

# Elurrak ez du apartekorik eragin, baina Elgetan argi barik egon ziren

*Neguko bigarren elurtea hotzagoa izan da. 15 eta 30 cm arteko elurra egin du Debagoienean. Pello Zabalak esan digunez, "ilbeheran egingo du berriz ere elurra, otsailaren 21a aldera. Elur hautsa egingo du eta oraingoan moduan, hotza"*

Marijo Deogracias

Kostatik sartu eta gurera egubakoitz arratsean iritsi zen elurra. Aurtengo neguko bigarrena da, dagoeneko, abenduaren 28an egin zuen eta lehenengoa. Horrela gogorarazi digu Pello Zabalak. "Dagoeneko eman du eman beharrekoa, baina ez da azkenekoa izango. Aurrekoa ere ilbeheran egin zuen eta hurrengoa ere horrela izango da", azaldu digu Arantzazuko fraideak. Han, Arantzazun, 15 bat cm-ko elurra egin du oraingoan, "Elur gaiztoa hau ere. Aurrekoan ere esan nizuen horrelakoa izango zela aurtengo elurra; oso hotza, hauts modukoa, baina oso hotza; ezertarako ona ez den elurra, ez eskiatzeko, ezta errepideetan ibiltzeko ere".

## ISTRIPURIK EZ

Egubakoitzean izan ziren arazorik larrienak Debagoieneko

errepideetan, elurra zela eta. Arlabango eta Elgetako mendateak itxita egon ziren, ordu batzuetan, kamioiendako, eta Kanpanzar ere itxi egin zuten kamioi bi gurutzatuta geratu zirela eta. Osterantzean, kateak erabiltzeko aholkua egin zuten ibarreko beste mendateetan. Egubakoitz gauek zapatura bitartean ere elurra egin zuen gurean, baina elurra kentzeko makinak aritu ziren N-634 errepidean, Deskargan gora eta behera, eta baita Gi-627 errepidean ere. Osterantzean, eta Ertzaintzaren prentsa bulegotik adierazi digutenez, ez da istripurik izan Debagoieneko errepideetan. Hala ere, eta zapatu gaueko tenperatura hotzak zirela eta, kontu handiz gidatzeko gomendioa eman dute Herrizaingo sailetik, errepide eta mendate askotan izotz plakak egin direlako.



JOSETXO ARANTZABAL

Bergarako Irala kaleak itxura hau zuen zapatu goizean.

Bizkaia aldeko hainbat herri-tan legez, Elgetan ere argi barik geratu ziren. Elurraren pisu-gatik Iberdrolaren kable baten gainera jausitako zuhaitz batek eragin zuen matxura egubakoitz goizaldean. Iberdrolak zapatuan 20:00etarako konponduta izango zuela agindu zuen; 15 ordu egin zuten argi barik elgetarrek.

## HAINBAT EKITALDI BERTAN BEHERA

Elurrak berarekin ekarri du plan

### Elurra cm-tan

Arantzazu	14-15
Elgeta	25
Gorla	30-40
Gatzaga	15-20
Antzuola	12-13
Atxabalpe	8

aldaketa bat baino gehiago agendetan. Bergarako San Pedro elizan egitekoa zen organo erromantikoaren kontzertua kontzertua ez zen egin.

Kirol ekitaldiei eragin die gehien bat elurrak. Eskola kirolean aritzen diren neskato-mutikoez, esaterako, Arrasateko hitzorduekin ezin izan zuten bete. Oñatin, berriz, kanpoan egitekoak ziren kirol ekintzak atzeratu behar izan zituzten. Atzo preferente mailako bi futbol partidak ezin izan ziren jokatu.

## Elur izoztua egingo du otsaila amaiera aldera ere

Ipar-ekialdetik, Europatik pasatu ostean, iritsi zaigu elurra Euskal Herrira. Horrela azaldu digu Pello Zabalak. Aurrekoan ere, abenduaren 28an, elur oso hotza izan zen. Hona heltzerako izoztuta datorren elurra. Horixe izango da aurtengo elurraren ezaugarri nabarmena, oso hotza izango dela. Gainera, tenperaturak ere oso hotzak izango direnez, batez ere goiz partean, izotz handia egingo da bazterretan. Elurtetxoak izango dira, ilbehera inguruetan, baina oso handiak ez izan arren, oso hotzak izango dira". Pello Zabalak azaldutakoaren arabera, "pentsa daiteke, otsaileko ilbeheran ere berriz egingo duela elurra. Aurrekoan ere ilbehera baino egun bi lehenago egin zuen, eta otsailean ere antzera gertatuko da; inauterien aurretik hortaz".



OIER BILLA

## • ELURRETARA JOLASEAN JOAN ZARETE ASTEBURUAN?



GARAZI, LEIRE, UXUE, ITZIAR ETA NEREA | BERGARA

Zapatu goizean izan ziren elurretan bost neskatak. Zurrara, San Martzialera eta Gorrara joan ziren, gurasoekin batzuk eta lagun artean beste batzuk. Herriko parke txikian ere aritu zirela esan ziguten bik, Bergarako kalea ere erabat zuritu baitzuen egubakoitzean egindako elurrak.



UNAI, XABIER ETA MARKEL | BERGARA

Unai domeka goizean Legazpiraino joan zen gurasoekin, baina aurreko egunean, zapatuan, hirurak aritu ziren elur pilotak egin eta elkarri joka. "Berobero joan ginen etxera denok", zioten barreka hirurek. Zurrara ere igo zen Markel panpina egitera eta Xabierrek etxeko balkoian egin zuen berea.



JOSETXO ARANTZABAL

140 bat lagun batu ziren atzo bazkaltzera Al-Andalus elkartearen 16. urtemuga ospatzeko.

## Logroñoakoekin ospatu zuten 16. urtemuga

*Arrasateko Al-Andalus zentroak jaia egin zuten atzo urtemuga ospatzeko eta logroñoarrak Arantzazura eroan zituzten*

M.B.

Arrasateko Al-Andalus elkarteak 16. urtemuga ospatu zuen atzo. Logroñoako elkarte andaluziarra gonbidatu zuten urtemuga ospatzeko; izan ere, "Arrasateko elkarte sortzeko lanean hasi ginenean, 1990ean, euren gana jo eta eurak izan ziren gure ispilu", azaldu zigun Rafa Gomezek, elkartearen lehendakaria. Horrez gain, lehenengo jai errozieroa egin zutenean, Logroñoako elkarteak abestu zuen lehenengo meza hartan.

Bisita gidatua prestatu zieten Arrasatekoek Logroñoako. Arantzazura eroan zituzten, Santutegia eta hango parajeak erakustera, eta fraideek oso harrera ona egin zietela aitortu zigun Gomezek.

Eguerdian bazkaria egin zuten egoitzan, 140 bat lagunek, eta horren ondotik, musika eta dantza emanaldia izan zuten.

**HIRU KULTUREN TOPAKETA**  
Urtarrilaren 15ean urteko batzarrak egin zuten eta zuzendaritza berria du ordutik elkarteak,

Gomezek azaldutakoaren arabera. Eta dagoeneko, ari dira ekimen berriak bultzatu nahian. Horietako bat da Hiru kulturen topaketa. Kataluniako, Euskal Herriko eta Andaluziako kulturak batuko dituen topaketa egin nahi dute, eta dagoeneko harremanetan daude Bartzelonako San Joan Despi herriko elkarte andaluzarekin. Seguru asko, maiatzean egingo dute lehenengo topaketa, San Joan Despin. Arrasaten noiz egingo duten zehazteke dute oraindik Gomezek gehitu duenez, baina Udalarekin harremanetan daudela aurreratu du topaketa egin ahal izateko. Beste berrikuntzetako bat da ekainean Erroziora joango direla elkarteak hainbat kide.

## HABEk Aranzabalen lana erabiliko du Osakidetzako beharginak euskalduntzeko

*Irailerako gertu izango du HABEk ikasmaterial berria. Joxe Aranzabalek idatzitako artikulu eta elkarriketak erabiliko ditu, besteak beste*

Marijo Deogracias

Medikuak esan dit minbizia dudala liburuan jasotako artikuluetako batzuk –Joxe Aranzabalek aurretik *sustatu.com* webgunean idatzi zituen artikuluekin osatu zuen liburua– eta hainbat hedabidetan egindako elkarriketak erabiliko ditu HABEk irailean kaleratuko duen ikasmaterial berrian. Osakidetzako langileak euskalduntzeko gertatzen ari diren unitatean jasoko ditu HABEk Joxe Aranzabalen idatziak. Horrela argitaratu du Aranzabalek *Faroa* bere blogean eta horren harira galdetuta, ideia oso ondo hartu duela adierazi digu: "Oso ondo iruditu zait. Gaiak badu zerikusia osasunarekin, eta, alde horretatik, interesa dakieke Osakidetzako euskara ikasleei. Ikusi dut, gainera, ondo landu dutela, eta jokoa ematen duela hizkuntza ikasteko".

Begoña Martinez HABEko ordezkariak adierazi digunez, "ikasmateriala Osakidetzako langileei zuzenduta dago eta Joxe Aranzabalen lana espezialitatean ari diren medikuek erabilteko materiala dela ikusi dugu. Aldizkaria eta Internetarako artikuluetak gertatuko ditugu eta Joxerena legez, beste hainbat material ere erabiliko dugu ikasmateriala osatzeko".



TXELU ANGOITIA

Joxe liburua azala erakusten.

### SARETIK PAPERERA

Aranzabalek materiala ikusteko aukera izan du eta dioenez, "materialak helburu du ikaslea jabeaztea modu informalean zer den linfoma. Hori guztia hizkuntzaren ikuspegitik landuta". Gainera, eta aitortu digunez, pozik dago HABEk izan duen asmoarekin: "Kalterik ez dio egingo liburuari. Alderantziz. Baten bat anima daiteke liburua erostera hor ibili eta gero". Minbizia zuela jakin zutenean hasi zen artikuluetan idazten eta sarean jasotakotik osatu zuen *Medikuak esan dit minbizia dudala* liburua.

**"Materialak helburu du ikaslea jabeaztea modu informalean zer den linfoma, hizkuntza landu bitartean"**

### • URIBARRIKO ERRETIRATUEI OMENALDIA, ARRASATEN

#### ELKARTEKO EDADETUENEK SARIA JASO ZUTEN

Uribarriko erretiratuen elkartearen omenaldia egin zuten egubakoitzean 80 urtetik gorako erretiratuei. Aitzakia hori tarteko, urtero egiten dute bazkaria elkartearen bertan, eta hala egin zuten egubakoitzean ere.

30 bat lagun bildu ziren mahaiaren bueltan. Tripa bapote ostean, kafearekin batera opari bana jaso zuten. Baina gainerakoek baino bereziagoak izan ziren Jose Manuel Arriolak eta Faustina Varquerok jasotakoak, elkartearen gizon eta emakume nagusienak direlako: 89 urte dituzte eta 90 betetzear daude biak.



IKER BARANDIARAN

### • FUTBOLIN TXAPELKETA, ARRASATEN



JOSETXO ARANTZABAL

### ONDARROARAKO SAILKATZEKO KANPORAKETAK

Banakako futbolin txapelketa hasi da asteburuan ibarrean ere. Hala, Ondarroan otsailaren 4an jokatu den Euskadiko Txapelketarako sailkatuko diren batzuk nor diren erabakita dago. Arrasaten, esaterako, Xabi, Txonan eta Ani sailkatu dira. Ondarroan erabakiko da nortzuk sailkatuko diren Las Vegaseko (AEB) txapelketarako.

# Fagorreko lantegi berria da lehenengoa UNE 150301 ziurtagiria jasotzen

*Gaur 11:45ean jasoko du Fagorrek AENORen eskutik ziurtagiria, Gandiaga Topagunean. Lehendakaria ere han izango da*

Marijo Deogracias

*Ecodiseño* diseinu eta garapen prozesuan oinarritu du Fagorrek Garagartzako lantegi berriko garbigailuen ekoizpena, eta horixe aitortu nahi dio AENOR elkarteak. Ziurtagiri ematea Arantzazuko Gandiaga Topagunean egingo da gaur eguerdian. Han izango dira, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Ingurumen sailburu Esther Larrañaga, AENOR elkarteko lehendakari Manuel Lopez Cachero, MCCko lehendakari Jesus Catania, Fagor etxetresna elektrikoaren zuzendari nagusi Belen Kortabarría eta Fagorreko garbitze negozioko kudeatzaile Fernando Ipiña.

## LEHENENGOA MUNDUAN

Lehenengoz ematen da UNE 150301 saria. "Mundu osoan lehenengo aldia izango da", azaldu digute Fagorretik; izan ere, ziurtagiri berria da AENORek ematen duena. UNE 150301 arauak egiaztatzen duena da, produktua sortu eta diseinatu dela *Ecodiseño* agintzen dituen arauetara jarraituz; hau da, asmatzen den unetik produzitzen den arteko prozesu guztian ingurumenare-



2004ko abenduan inauguratu zuten Garagartzako lantegi berria.

kiko errespetuz egin dela: prozesuan erabili diren elementu guztiak erabat birziklagarriak direla.

Garagartzako lantegi berria zabaldu zutenean, ordurako, produktzio modu hori egiteko egoki-

tu zuten. Han egiten dira belnaldi berriko garbigailuak eta, hain justu, garbigailu horiek dira ziurtagiri berriarekin egiaztatu direnak. "Produktua UNE araudi berri horretara egokitzeko asmatua dago eta produktuak orain aterako dira", adierazi digute Fagorretik.

2004ko abenduan inauguratu zuten Garagartzako 20.000 metro koadroko lantegi berria. Ia 70 milioi euroko inbertsio egin zuten eta urtean 2,7 milioi etxetresna elektriko produzitzeko ahalmena dauka.

**Mundu osoan lehenengoz emango dute UNE 150301 arauaren agiria**

## • ANTZUOLAKO GAZTEGUNEAN

### SEXU TAILERRA IZAN DUTE ZAPATUAN ETA DOMEKAN

Sexu tailerra egin dute asteburuan Antzuolako gaztegunean. 12 eta 14 urte bitarteko gazteek hartu dute parte eta gazteguneko arduradunen esanetan, "oso gustura egon dira". Eider Arzelus hezitzaileak gidatu du tailerra. Gaztetxoek sexuaren gainean zer dakiten jakiteko ariketak egin zituen lehenengo hezitzaileak eta, gero, hortik abiatu zituen bere eskolak. Jolasen bitartez, antisorgailuak zer diren, zertarako erabili behar diren eta noiz erabili behar diren ikasi zuten, esaterako. Gazteguneko arduradunak ere pozik daude emaitzarekin eta tailerrak jarraipena izango duela azaldu dute.



JOSETXO ARANTZABAL

# Bergarako Labegaraiak erosi nahi ditu Kanadako siderurgia enpresa batek

Marijo Deogracias

## LANGILEEN EZJAKINTASUNA

Eguenean azaldu zuen Kanadako Mittal Steel siderurgia enpresak Arcelor taldea bereganatzeko nahia. Arcelor 18.600 milioi eurotan erosiko duela iragarri zuen Mittal Steel enpresak. Arcelor taldeko enpresa da baita Bergarako Labegaraietako ere. 2000. urtera arte Aceraliaren enpresa zen Bergarako, baina urte horretan osatu zen Arcelor taldea Espainiako Aceralia, Belgikako Arbed eta Frantziako Usinor-Sacilor siderurgiekin batera. Arcelor taldearen lantegirik txikiena da gaur egun Bergarako.

Bergaran 284 langile ari dira Arcelorren. Aurretik, Aceralia jabe bakarra zenean, 312 ziren. LAB sindikatutik adierazi digutenez, "enpresatik ez dugu inolako informaziorik jaso. Baina horrelako operazioen kontra gaude, erabakiguneak hain urrutiko egoteak funtzionamendua zailtzen baitu". ELA sindikatutik azaldu digutenez, "operazio finantzarioa da industrial bano gehiago, baina ofizialki ez digute ezer esan. Hala ere, kezka beti dago. Arcelorrek beti esan izan du etekina ateratzea duela helburu".



JOSETXO ARANTZABAL

Mendi buelta eta bilkura egin zuten atzo Kepa Urria gogoan zutela.

# Zuhaitz Errasti presoak lekuz aldatu dute, baina ez dakite nora

*Aretxabaletarrari elkartasuna adierazteko Poitiersera egitekoak ziren martxa bertan behera laga zuten*

Monika Belastegi

Egubakoitzean jakin zuen Askatasunak Zuhaitz Errasti Aretxabaletako presoak dagoeneko ez dagoela Poitierseko espetxean, eta atzo, domeka, egoerak bere horretan segitzen zuten taldeko kideek azaldukoaren arabera: "Ez haren abokatuak, ez familiak... inork ez daki nora eroan duten Zuhaitz. Egubakoitzean jakin genuen eta oraindik halaxe gaude". Ondorioz, zapatuan Poitierseko espetxera antolatuta zeukaten martxa bertan behera laga zuten. Martxarekin Errastiri elkartasuna adierazi nahi zioten eta "haren egoeraren larritasuna salatu" ere bai.

Herriko Kepa Urria presoak ere izan dute gogoan asteburuan Aretxabaletan. 14 urte bete zituen atzo preso eta *Beraien eskubideen alde borrokan, euskal presoak Euskal Herrira* lelopeko elkarretartzea egin zuten. Gogora ekarri zuten, bestalde, Galiziatik Puerto 1 espetxera eroan zutela abuztuaren eta bitarteko 10 lagunera murriztu dizkiotela.

Horrekin guztiarekin, Espainiak eta Frantziak daroaten "mendeku politikaren adibide garbia" da Askatasunarendako Aretxabaletako presoekin gertatzen ari dena eta bi gobernuak "berdin jokatzeko dutela" ere lagatzen du agerian, "presoen eskubideak erabat murriztuz".

Arrasateko Monterron Udal liburutegian izan zen Juan Carlos Alonso psikologo donostiarra joan zen egunean. *Beldurra ipuinetan* berbaldia egin zuen Alonsok.

*Beldurraren aretoan* ekimenaren bitartez umeei beldurrezko ipuinak kontatzea, hein baten, terapeutikoa dela azaltzen aritu da; eta joan zen egunean egindako

berbaldian, irakasle eta gurasoen aurrean, bere teoriaren berri ematen aritu zen, Udal liburutegiak eta Galtzagorri elkarteak antolatuta.

JUAN CARLOS ALONSO | PSIKOLOGOA

# "Gure beldurrak, helduonak, proiektatzen ditugu haurrengan"

Marijo Deogracias

**Umeei beldurrezko ipuinak kontatzea onuragarria da?**

Horren kontra dagoen ikuspegi okerra azaltzeko asmoz egin nuen berbaldia. Helduen beldurrek eragiten digute ikuspegi ezkor hori beldurrezko ipuinen gainean; beldurrik handiena beldurra izatea da.

**Baina zuk diozun plazera eragin dezakete beldurrezko ipuinek?**

Umeak beldurra sentitzen duenean bere barruko bizipenen batekin lotzen duelako izaten da. Horretarako aukera ematen diote ipuinek. Kasu gehienetan errealitatean gertatzen ez diren bizipenak dira, hortaz, umeak badauki bereizten. Ipuinak azaleratzen dio bere barruan sentitzen duen hura eta, jakin-minak erakarritak, umeak dituen beldur ebolutibo horiek plazer bihurtzen dira ipuina umorez kontatzen bada.

**Hortaz, kontaketa prozesu horrek balio terapeutikoa duela esango zenuke?**

Ipuinetako pertsonaien bidez umeak bere nahiak agertzen ditu eta aukera horregatik litzateke terapeutikoa. Ipuinetako iluntasun, bakardade, monstruo, edo mamuei aurre egiten dien pertsonaiekin bat egiten du. Fikzioaren bidez errealitatea eza gutzen du. Fantasia eta fikzioa behar ditu bere errealitatea ulertzeko eta, zentzu horretan, beldurrezko ipuinek aukera ematen diote. Egunerokotasunean ez da heriotzaz, mamuez eta antzeko ez hitz egiten eta ipuinak hauste puntua badaukanez, erakarri egiten du. Umeak zalantza izaten du gai horietara hurbildu ala ez, baina hurbiltzean, berarentzat maitagarria den heldu batekin egiten badu, ondo pasatzen du. **Gaur egungo beldurrezko istorioek, ipuin tradizionalekin alderatuta, irudi dezente beldurgarriagoak dituzte.**

Gaur egungo ipuinek beldurra era samurrago baten lantzen

dute, umea babestu nahiko balute moduan. "Cuentos quitamiedos" deitzen direnak erabiltzen dira, oso xarmangarriak dira, umorea erabiltzen dute, beldurra desmitifikatzen dute.

Beste alde batetik, hedabideek, komunikabideek eta bestelakoek, irudi oso gogorak erakusten dituzte eta horrekin kontu handia izan behar da. Ume txikiak irudi krudela, ankerra ikusten baldin badu, zuzen-zuzenean bere oroimenean gordeko du eta behin eta berriro gogoratuko du, bakarrik dagoenean. Hortaz, eta berbaldian azpimarratu nuen moduan, kontu handia izan behar da telebista eta antzekoetan ematen dituzten irudiekin.

**Ipuin klasikoetako pertsonaiak umeengan trauma txikiak eragiteko modukoak direla esaten da sarri. Zer diozu?**

Nire ustez, ikuspegi hori zabaldu da umeak gehiegi babesten ditugulako, literatura bera ere zalantzan jartzeraino. Literaturatik ere babestu nahi ditugu gure umeak: "Ipuin klasiko hori ez kontatu, gero amesgaiztoak izango dituelako" eta horrelakoak entzuten dira gaur egungo gurasoen artean. Baina umeak badakite bereizten errealitatea eta ipuin klasiko horiek dioten

**"Umeak beldurra sentitzen du bere barruko bizipenen batekin lotzen duelako"**

**"Maitagarria zaion helduarekin irakurri behar ditu beldurrezko ipuinak"**



Monterronen izan zen egunean Juan Carlos Alonso, berbaldia egiten.

"bazen behin, urrutiko herrialde baten..." fikzioa. Gure beldurrak, helduonak, haurrengan proiektatzen ditugu eta horregatik iristen gara horrelako usteetara. Baina umeak guk uste baino argiagoak dira. Ipuin tradizionalen oso zalea naiz ni.

**"Umeak gehiegi babesten ditugu, literatura bera ere zalantzan jartzeraino"**

**"Beldurrezko ipuinek ez dute beldur berririk eragiten. Beldurra normalizatzen dute"**

**Laburbilduz: umeei beldur sentazioaz hitz egin behar zaie, naturaltasun osoz.**

Beldurrezko ipuin bat ez kontatzea beldurra izatea da, aldiz, kontatuz gero, umea ohartuko da denok sentitzen dugula beldurra. Beldurra normalizatu egiten du, txikitatik ohituz gero. Beldurrezko ipuinek ez dute beldur berririk eragiten. Ipuinaren bidez haurrak bere baitan dituen beldurrak azaleratzen ditu. **Hala ere, gaur egungo umeak dezente beldurriagoak dira, ala? Indarkeria askorekin bizi dira eta hori beldurgarria da oso.**

Hain justu, *Indarkeria eta ipuina* monografikoa gertatzen ari naiz orain. Indarkeria zerk eragiten duen landuko dut ikastaro horretan. Umeak ez dira aingerutxoak, baina deabruak ere ez. Ipuinaren bidez gure sentimendu ezkor horiek kanalizatzea lortzen da. Baina gaur egun, umeak telebistaren, marrazki bizi-

dunen eta antzekoen bidez indarkeria bortitzaren testigu izaten ari dira eta horrek min handia eragiten die umeei. Baina baloreak eta rolak ere kontuan izan behar dira. Eta horretan guztian hanka sartze handiak daude.

**Berbaldian beldurra eta estualdia bereiztu zenituen. Beldurrak estualdia eragiten du, ala?**

Beldurra objektu zehatz baten aurrean sortzen den arriskua sentitzea litzateke. Iluntasunari, ezezagunari... izaten zaio beldurra. Estutasuna, aldiz, zehaztu bako edo ondo irudikatu bako objektu baten aurrean sentitzen den arriskua litzateke. Hau da, hain justu, ipuin klasikoek lantzen zutena. Ipuin klasikoetako pertsonaiak eta beldurrezko pertsonaiak sinbolikoak dira.

Ipuin klasikoek ez diote haurrari zertaz hitz egingo dioten esaten. Oro har, haurra zehaztu gabeko egoera baten aurrean jartzen dute.

## Albiste izango da

ARRASATE | HIRU HILABETEZ EGONGO DA ITXITA

## Itxi egingo dute gaur Mojategi eta Arruena arteko ibilbidea

Itxi egingo dute gaur Mojategin, Deba erreka errekaren ezkerreko aldean, dagoen oinezkoendako ibilbidea. Ibilbidearen zati bat itxiko dute, Arruena aparkalekua eta Mojategi lotzen dituen egurrezko zubira arteko zatia, hain justu. Bidea ixteko arrazoia dira Mojategi kirolgune berriko lanak, eta hala egongo da hiru hilabetez.

Bestetik, osoko bilkura egingo du gaur udalbatzak. Besteak beste, Arrasateko Hiri Antolamenduaren Egitamua Orokorraren lehen testu bateratua onartzeko proposamena egingo dute. 15:00etan izango da, osoko bilkuren aretoan.

ARRASATE | 10:00ETAN IZANGO DA EKITALDIA

## Umezaintza berritua inauguratuko du bihar Arizmendi Ikastolak

Arizmendi Ikastolak Umezaintza berritua –hainbat hobekuntza egin dizkiote– inauguratuko du bihar, martitzena. Ekitaldian egongo dira Eusko Jaurlaritzako Ikastetxeen zuzendari Juan Jose Arriazabala; Ignacio Lakuntza, Arrasateko alkatea; Mikel Lezamiz, Arizmendiko lehendakaria, eta Jose Ramon Zubizarreta, Gipuzkoako Ikastolen elkartearen lehendakaria.

Arrasateko haurtzaindegi hori Estatuan sortu zen lehenengoa izan zen, Auzo Lagun kooperatibaren ekimenari esker. Auzo Lagun emakumeak lan mundura sartzeko xedearekin sortu zen eta orduan hasi zen baita ere, umeak norbaitek zaintzeko beharra. Hala sortu zuten gaur egun Arizmendirena den Umezaintza.

ANTZUOLA | 11:00ETAN, OLARAN ETXEAN

## Gaur 'Kantu eta Jolasak' DVDa aurkeztuko du Mankomunitateak

Debagoieneko Mankomunitateak eta ibarreko udalek elkarlanean *Kantu eta Jolasak* izeneko DVDa kaleratu dute. Helburu nagusia da umeekin euskaraz jolasteko aukera eskaintzea gurasoei. Izan ere, adin horretako umeak dituzten gurasoek, nahiz eta euskaldunak izan, jolas eta abesti gehiago ezagutzen dituzte gaztelaniaz, eta gabezia horri erantzuteko egin dute DVDa.

Horrez gain, *Biharko euskara gaur- Su futuro euskara desde hoy* izeneko liburuak ere badator DVDaren barruan. Liburuak horretan jaso dituzte hizkuntzaren gaineko aholkuak 4-8 urteko haurrak dituzten gurasoendako. Liburuaren egilea Kike Amonarriz da.

Gaur, astelehena, aurkeztuko dute DVDa, Antzuolako Orlaran etxean, 11:00etan.

GATZAGA | ASTEBURUETAN EZ DA AUTOBUSIK EGONGO

## Gaur hasiko da autobus zerbitzua, baina hainbat gabeziarekin

Gatzagarrek urteak daramatzate garraiobide publikoa eskatzen, eta eskari hori indartu egin da azken hilabeteotan. Azkenean, Gipuzkoako Foru Aldundiak gaur bertan jarriko du abian autobus zerbitzua gatzagarrendako. Baina zerbitzu horrek hainbat gabezia izango ditu.

Hain justu ere, Foru aldundiak astelehenerako bidalitako ordu-tegiari erreparatuta, bistan da herritarrek egindako eskariak ez dituztela aintzat hartu; besteak beste, asteburuetan ez dutelako autobusik izango.

DEBAGOIENA | IZENEMATEA ZABALIK DAGO

## Gurutze Gorriak lehen sorospeneko hiru ikastaro antolatu ditu

Debagoieneko Gurutze Gorriak lehen sorospeneko ikastaroak antolatu ditu. Otsailaren 13tik aurrera lehen sorospeneko ikastaroa emango dute eta martxoaren 6tik 24ra bitartean geriatriakoa. Bietan 30 orduko eskolak egongo dira –Arrasaten, Mankomunitatearen egoitzan– eta 20 orduko praktikak –San Prudentzioko Gurutze Gorriaren egoitzan–. Martxoan, berriz, ur-sorospeneko ikastaroa emango dute asteburuetan Musakolako kiroldegian. Ikastarook baliagarriak dira hautazko kredituak lortzeko eta puntuagarri dira lan-eskaintza publikorako. Informazio gehiagorako edo izena emateko deitu 619 00 35 00 zenbakira.

## Hitzorduk



## SAN BLASEN OMENEZKO OSPAKIZUNAK APOTZAGA-ETXEBARRIN | Sailuente ermitan, meza esan eta jatekoak bedeinkatuko dituzte

San Blas eguneko ospakizunak egingo dituzte laster Debagoieneko herri batzuek. Hala, datorren egubakoitzean, otsailak 3, ospakizuna egingo dute Aretxabaletako Apotzaga-Etxebarri auzoan, Sailuente ermitan. Meza esango dute lehenengo, eta jatekoak bedeinkatuko dituzte gero. Han dago San

Blas santua eta horregatik egiten dituzte ospakizunak hantxe.

Bestetik, herrian bertan ere meza ospakizuna egongo da. Parrokian izango da meza entzuteko aukera, goizeko 11:30ean lehenengo eta arratsaldeko zazpietan gero.

## ARAMAIO |

## • Bainuetxeetara joateko eskaera epea zabalik dago

Bainuetxeetara joateko eskaera egin daiteke bihar, martitzena, bitartean. Hain zuzen, otsail eta abuztua bitartean joan gura duten pentsiodunek egin dezakete eskaera. Honako agiriak aurkeztu behar dira: NAREN fotokopia; hilean jasotzen den pentsioaren zenbateko zehatza; Gizarte Segurantzako afiliazio-zenbakia; eta medikuaren txostena. Argibide gehiago, udaletzeko bulegoetan.

## ARETXABALETA |

## • Eski irteerarako izena eman daiteke gaztelekuan

Luz Ardidenera eski irteera antolatu dute Atxagazte eta Eskoriatzako gaztelekuak elkarrekin. Otsailaren 11n, zapatua, izango da, egun bakarrekoa. 40 euro da.

## • Elikadura zaintzeko aholkuak emango dituzte

Elikadura zaintzeko aholkuak emango ditu Leire Pagaldaik egunean, hilak 2, udaletxe zaharrean, 19:00etan, Lora-mendi elkarteak antolatuta.

## • Kurtzebarri eskolaren batzar informatiboak

Kurtzebarri eskolak, matrikulazio garaia datorrela eta, bere proiektuaren gaineko batzar informatiboak egingo

ditu egunean, otsailak 2, 18:00etan euskaraz eta 19:00etan espainolez. Norbaitek ezin badu joan, 943 79 00 49 zenbakira dei dezala.

## • Langileendako ikastaroak antolatu ditu institutuak

Lanean dabilen langileendako ikastaroak antolatu ditu Aretxabaletako institutuak. Guztiz diruz lagundutako ikastaroak dira. Fabrikazio elektromekaniko, metal-erakuntza, tresneria elektronikoa eta beste batzuk emango dituzte. Argibideak, institutuan (943 79 79 00).

## • Erlijio bizitzaren eguna ospatuko dute etzi

Erlijio bizitzaren eguna ospatuko dute etzi, eguaztena. Hala, Kontzeptzionistenean, erlijio bizitzaren aldeko otoitzaldia deitu du Artziprestaldeko Bokazio Pastoraltzako Batzordeak, 09:00etan.

## ARRASATE |

## • Ate irekien jardunaldia Goi Eskola Politeknikoan

Ate irekien jardunaldia egingo dute otsailaren 2an, eguena, Goi Eskola Politeknikoan, 17:30ean.

## BERGARA |

• Xabier Arzalluzek *Así fue* liburua aurkeztuko du Xabier Arzalluzek *Así fue* liburua aurkeztuko du egunean,

hilak 2, Miguel Altuna institutuan, 19:30ean.

## • Orfeoak batzar orokorra egingo du otsailaren 14an

Bergarako Orfeoak batzar orokorra egingo du otsailaren 14an, martitzena, Zabalotegiko aretoan. Besteak beste, zuzendaritza berrituko dute. Orfeoiko kide eta bazkideei dei egiten diete joateko, 20:30ean lehen deialdian eta 21:00etan bigarrenarekin.

## • Santa Ageda bezperako entseguak gaur hasten dira

Santa Ageda bezperako entseguak egingo dituzte Aranzadi ikastolako gurasoek urtarrilaren 30ean eta otsailaren 2an, 19:00etan, plazako eraikinean.

## ESKORIATZA |

## • Kandelario eguneko ospakizunak egingo dituzte

Kandelario egunean, otsailaren 2an, ohiturari jarraituta, iaz bataiatutako umeak aurkeztu eta kandelak bedeinkatuko dituzte parrokian, 19:00etako mezan.

## OÑATI |

## • Eski irteerak antolatu ditu Aloña Mendiko Eski Sailak

Otsailaren 10, 11 eta 12an, Baqueirara joango dira; martxoaren 17, 18 eta 19an beste irteera bat egingo dute; eta Aste Santuan Tiñesera, Alpetara, joango dira.



**BERANGO**

DEKORAZIOA, SUKALDEAK

**LOGOS**  
ALTZARI INTEGRALAK

Q U A T R O

Tel.: 943 79 01 92  
Gipuzkoa etorbidea 1  
20500 Arrasate

Muebles

**Kabía**

**4 URTE**  
*interes barik*

Altzariak

Gipuzkoa etorbidea 23  
20500 Arrasate  
Tel./Faxa: 943 79 27 70



# Iritziak



## Isilpekoak

**943 25 05 02**  
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

### • Espaloiak ez dira bizikletendako

Bergararik iritsi zaigu hurrengo txistua. Ez dira asko izango dagoen hotzarekin bizikletaz dabilzan neskato-mutikoak, baina gure irakurleak batzuekin, behintzat, egin du topo, eta oinezkoak, hau da, gure irakurleak, espaloitik jaitsi behar izan du bizikletak harrapatuko zuelako osterantzean. Hark azaldu digunez, "Barrenkaleko kantoian, Egin Mallea etxearen inguruko espaloian, bizikleta batek ia-ia harrapatu egin ninduen aurreko egunean. Neu etxe horretatik Barrenkalera nentorren eta hortxe justu, kontra bidea egiten zetorren bizikleta batekin aurrez aurre jo nintzen. Barrenkaleko espaloitik zetorren bizikleta eta eskuekin geratu nuen mutikoaren bizikleta. A zelako sustoa! Mutiko hari norbaitek agindu ote zion bidetik barik espaloitik joan zedin ez dakit, baina badaezpada, hemendik esan nahi nuke espaloiak oinezkoendako eta gurgildun aulkiendako direla eta ez bizikletendako, adin txikikoak badira ere bizikleta gainean doazenak".

### • Biribilguneko barruko eta kanpoko bideak

Gure eskualdean geroz eta biribilgune gehiago ditugu, baina badirudi erabiltzaileok oraindik ez dakigula biribilguneak nola erabili behar ditugun. Inoiz iritsi zaigu antzerako txisturik tarte honetara. Oraingoan zera dio gure txistulariak: "San Prudentzioko (Elorregi) biribilgunetik igaro behar izaten dut maiz, Bergararik Oñatira bidean, eta asper-asper eginda nago Arrasaterantz doazen gidari azkarrek egiten dituzten gurutzatze arriskutsuekin. Gidari, biribilguneko lehenengo irteeran ateratzekoa bazara, kanpoko bidean jarri eta ez barrukoan, beste guztiei traba egiten! Errepidea berez ere nahiko arriskutsua da; hortaz, ez ibili bazterrak nahasten".

## Sarean harrapatuta

### Zaintzen duzu elikadura?

Sei lagunetik batek loditasun arazoak ditu. Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) ohartarazi du loditasuna izurrite bihurtu dela, eta ez herrialde industrializatueta bakarrik. Izan ere, garatzeko bidean diren

herrialdeetan ere nabarmen egin du gora gizontasun arazoak dituztenen kopuruak. OMEren arabera, egungo joera mantenduz gero, 2015. urterako milioi erdi biztanle gehiagok izango dute arazo hori.

### GUTXIAGO JATEA DA NIRE ASMOA

Astelehenean hasi nintzen erregimenean. Nire asmoa ez da ez jatea, gutxiago jatea baizik. Ea zenbat egun agoantzen dudan jatorduetatik kanpo mokadurik jan gabe!

Pottola / www.goiena.net

### KOIKE GUTXIKO JAKIAK JAN BEHARKO DITUT

Ni saiatzen naiz elikadura zaintzen, baina ezinezkoa dela iruditzen zait. Izan ere, gose handia pasatzen dut eta asko, gehiegi jaten dut. Denetarik jaten dut eta koipe gutxiko jakiak jatera ohitu beharko naiz. Baina, horren zaila egiten zait...

Gosea / www.goiena.net

### KOIPERIK EZ JAN ETA GIMNASIORA JOAN

Bai, asko zaintzen dut nire burua. Orokorrean, urte osoan elikadura zaintzen saiatzen naiz. Ez dut janari koipetsurik jaten, ezta haragirik ere. Fruitu eta barazki asko jaten dut. Gimnasia ere joaten naiz egunero bi orduz.

Miren / www.goiena.net

### ZERGATIK KENDU BIZITZAKO PLAZERRAK?

Nik ez dut nire burua batere zaintzen. Mirenek egiten duen laurdena ere ez dut egiten. Haragi

asko jaten dut eta janari koipetsua atsegin dut. Gimnasia ere ez naiz joaten. Baina oso pozik bizi naiz. Zergatik kendu bizitzako plazer horiek? Ez dut ulertzen askoren jarrera. Gero haserre eta umore aldakorrekin ibiltzen dira beti! Eta guk haiek agoantatu behar!

Peru / www.goiena.net

### OSASUNA ZAINZTEN DENBORA INBERTITU

Elikadura zaindu beharra dago. Orain janari aurrefabrikatu asko

jaten ditugu eta ez gara konturatu benetan zer jaten ari garen. Erosketak egiterakoan hobeto begiratu beharko genuke zer erosten dugun eta kontzientziar erosi. Gero, batzuk esango dute presatzeko denborarik ez dutela eta horregatik erosten dituztela horiek, baina zer da garrantzitsuagoa, egunean bi ordu egitea sukaldean edo osasuna izortzea?

Lolo / www.goiena.net

### ETXEAN IKASITAKO MODUAN JAN DEZAGUN

Batzuek gehiegi zaintzen dute jatekoa. Egia da ohitura batzuk hartu ditugula oso osasungarriak ez direnak: pizzak, izoztutako jakiak... Baina, denok (gehienok) ikasi dugu ondo jaten etxean, ezta? Ba segi dezagun horrelaxe jaten eta laga alde batera *light* eta horrelako tontakeriak!

Juanan / www.goiena.net

### NEURRIA HARTU BEHAR DIOGU JATEKOARI

Nik uste dut ezin dela obsesio-natu. Muturreko joerak oso kaltegarriak dira. Ezin gara uneoro gure burua kontrolatzen ibili, zer jan eta zer ez jan pentsatzen. Egun dena hanburgesak eta patata frijituak jaten ere ezin gara egon. Guztiak dauka neurri bat.

Jorge / www.goiena.net

## www.goiena.net

Sei lagunetik batek loditasun arazoak ditu. Zaintzen duzu elikadura?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo [www.goiena.net](http://www.goiena.net) webgunera

## Halaxe erantzun digute

Bernardo Atxaga proposatu dute Juan Mari Lekuona euskaltzaina zena ordezkatzeko. Zer deritzozu?



ANA TOLEDO | EUSKALTZAINA

Barnera begira, euskal literaturaren ibilbidean herri literatura eta literatura landua banatuta jorratu izan dira; Atxagaren obran biak nahasten dira, modu herritarra eta landua. Kanpora begira, berriz, Atxagaren lanak duen nazioarteko proiektzioa azpimarratuko nuke.



PATXI URIBARREN | EUSKALTZAIN URGAZLEA

Oso ondo deritzat. Euskaltzaindian hizkuntzalari ugari izanik, egoki deritzat idazle baten ordezkari bat aurkezteari. Gipuzkoarra behar du izan eta hala proposatu dute, nahiz eta herrialde horretan beste idazle on ugari izan. Euskararen alde lan oparora egitea opa diot.



MIRIAM URKIA | EUSKALTZAIN URGAZLEA

Oso berri ona da euskal munduarentzat, itzal handiko idazlea baita Atxaga, eta gaztea! Euskararen sortzaile eta erabiltzaile den neurrian, gaurko beharrei erantzuna bilatzen saiatuko da erakunde barrutik. Gainera, primeran beteko du Lekuonak utzitako hutsunea.



J. M. VELEZ DE MENDIZABAL | IDAZLEA

Planteamendua egokia da. Bernardo ez da lan batzordeetan arituko, baina hori ez da kontua. Sari-dunen mailak eskaintzen die sariei ohorea, ez alderantziz. Euskaltzaindia irabazle gertatzen da, hizkuntzaren akademiko osoen artean euskal literaturari ospe handien eman dion idazlea delako.



## Egunkarietako harribitxiak

### MARKA MERKE

Ohiturak aldatzen ari ei dira. Erosketa saskietan gero eta gehiago dira Eroski, Carrefour, Alcampo eta beste banatzaileen markak; lau produktuetatik bat inguru Euskal Herrian. Salneurria aldarri, gaztaren gero eta puska handiagoa hartzen dute. Eroskik eskaini zuen lehen marka zuria 1976an; detergente bat izan zen.

'Berria'  
2006-01-29



### POSTA ELEKTRONIKOAREN MENPE

Gizakiaren mesedetara dauden teknologia guztiek bezala, posta elektronikoak ere mendekotasuna sortzen du. Symantec-ek -AEBtako software firma- egindako azterketatik ondorioztatu dute hori. Europako, Ekialde Hurbileko eta Afrikako hainbat enpresatako 1.700 erabiltzailearen artean galdeketa egin dute eta inkestatuaren %75ek onartu

dute posta elektronikoaren menpe daudela. Espainiako Estatuari dagokionez, 2,9 ordu eskaintzen diogu posta elektronikoari, eta batez beste, 26 mezu jasotzen ditugu eta 20 bidali -jasotako %10 eta bidalitako %8 pertsonalak dira-. Galdeketatik atera duten beste ondorioetako bat da lan jarduna luzatu egiten duela posta elektronikoak. Estatuan 1,5 ordu.

'El Mundo'  
2006-01-29



## Tira, tira...



AEBk dirulaguntza kenduko dielako mehatxua egin die palestinarrei Hamasek gobernatuz gero.

Argote 'Noticias de Gipuzkoa' | 2006-1-29

## Egunkarietan irakurri dugu

### 'Berria'

#### ELKARRIZKETA

"PSOEk abertzaleen artekoa hautsi du. Ez da txantxetako Zapaterok lortu duena. Bonok-eta belarriekin txalotu beharko lukete Zapaterok Katalunian egin duena. Hasieratik honi nion beldur, zeren gero formula berarekin dator honantz. Zapatero horretara dator euskal arazoaren konponbidearen saio horretan. Ikusiko dugu".

Joseba Egibar  
2006-01-29

### 'Gara'

#### ELKARRIZKETA

"Gauza bat argi laga behar da: Euskal Herriko gatazka politiko eta armatua gainditzeko prozesuak ez du zerikusirik Katalunian. Gatazka estatutuaren erreforma prozesuarekin. Ez da helburu bera, ezta metodo bera ere. Ez gabiltza markoak aldatzeko proposatzen, gatazka modu estrukturalen konpontzea proposatzen baizik".

Arnaldo Otegi  
2006-01-29

### 'El Diario Vasco'

#### ELKARRIZKETA

"Badakit jende askok pentsatzen duela Euskadi nazio bat dela. Horregatik uste dut Kataluniako formulak balio dezakeela sentimendu batzuk adosteko legearen barruan. Nazioak termino kultural, soziologiko eta historikoan ez nau kezkatzen. Kezkatzen nau batzuek nahi dutenean nazio terminoa erabili independentziarako urrats gisa".

Patxi Lopez  
2006-01-29

### 'Deia'

#### ELKARRIZKETA

"Guk eskatzen genuen eta gaur egun eskatzen dugun estatutua ez da hau, Kataluniako parlamentuak onartu zuena baizik. Han goia markatu zen eta hura dugu jomuga oraindik ere. Seguru asko aterako den estatutua irailaren 30ean onartutakoaren oso azpitik dago, baina daukaguna baino hobea da. Hor-taz, aurrerapausoa da".

Jordi Pujol  
2006-01-29

## Zorroztalea



## Futbolean moduan

*Konponbide demokratikoaren aldeko borroka ezin dute elkarbizitza elementaleneko printzipioak suntsitu -indarkeriak eragindako biktimen oinazearekiko errespetua, besteak beste-, konponbidea eraikitzeko. Azpiazu eta Zuazolazigorraga preso ohiengatik asesinos! oihu egiten zutenek ezin dute legea bera baino urrutirago joan, kondena bete ondoren ere bi preso ohiak juzkatzen eta kondenatzen segitzen baitute.*

Anjel Lertxundi  
'Berria' | 2006-01-28

### Gerardo Markuleta

Ez dut oso gertutik segitzen futbolaren mundua, nahiz eta gozatze-ko gai naizen bertoko talde batek partida bereziki interesgarrian sartutako golekin (edo Madrilgo talde bereziki xuri batek jasotakoekin).

Idatzitakoari erreparatu eta ohartu naiz, futbolaz hizketan hasi eta berehala, esaldi bakarrean politikaren nolabaiteko aipamen bi isuri zaizkidala.

Ez aspaldi, sarri entzuten genuen hemen futbolaren modura egiten dela politika. Nor bere taldeari atxikita, aitzakiarik gabe; gainerako taldeak (eta zaleak) ez aurkari, etsai baino; epailea ere beti susmagarri, besteek eresia, saldua; gora gu eta gutarrak, eta etsaiari makailaua basamortuan. Nork entzun du hooligan bat autokritika egiten?

Ezin dizuet esan zein txapelketa zen, zein talde, zein zelaitan.

Baina bi partidako kanporaketa zen. Lehen partida bereziki "politikoa" gertatu zen: joko gogorra, agresioak, txartel gorriak. Lehia-keta TB kate berri batek emana zen: bigarren partida iragartzeko bide-oan ez zen golik ez jokaldi ederrik agertzen, bortxazkoenak baizik. Entrenatzaile batek "harmailak bero-bero" nahi zituela xaxatu zituen zaleak, eta kazetari ugari han ikusi behar ziren ostiko eta liskarren morboa sustatu.

Hortik aurrerakoa, jakina da: bigarren partida etenda geratu zen, epaile laguntzaile bati zale batek jaurtiriko txaponak bekaina ireki ziolako. Eta jokatzeko geratu zen puska atek itxita jokatuko da, talde biak ados jartzen badira, zeren kanpoan jokatzen zuen taldeak partida berak irabazitaz ematea nahi du.


Barkatu beti zeharbidez eta itzulinguruka berba egin behar hau.

**"Futbolaz hizketan hasi eta berehala, esaldi bakarrean politikaren nolabaiteko aipamen bi isuri zaizkit"**

**"Ez aspaldi, sarri entzuten genuen hemen futbolaren modura egiten dela politika. Nor bere taldeari atxikita, aitzakiarik gabe"**

# KIROLA

- Oñatiko gazte mailako neskak txapeldun eskubaloiko Federazio Kopan | 14
- Sergio Garcia oñatiarra nagusitu da gazte mailako Lasarteko Krosean | 17



Markel Irizar  
oñatiarrarekin  
jardun dugu hastear  
den denboraldi  
berriari buruz | 19

## FUTBOLA



Xabier Elgarrestak Aloña markagailuan aurreratzeko aukera polita izan zuen.

ARTXIBOA

## UDAK hobeto jokatu arren berdindu egin zuen Irunen

LANDETXA  
**2-2**  
ARETXABALETA

A.G.

Aretxabaleto bigarren erreional mailako taldeak atzo, domeka, eman zion hasiera iguera faseari. Irungo Landetxa taldearen futbol zelaitik 2-2ko ber-

dinketarekin itzuli ziren debagoiendarrak. Aukera gehiago sortu zituzten, baina penalti bat kale egin zuten eta garaipenak gutxi-gatik ihes egin zielakoan daude.

### LEHEN ZATIAN 2-0

Lehen zatian Landetxa taldeak bi gol egin zituen. Markagailua hobetzeko aukera izan zuten UDAkoek, baina Erikek kale egin zuen epaileak alde adierazitako penaltia. Bigarren zatian hobeto aritu ziren eta berdintzea lortu zuten. Joseba Errastik eta Josu Martinezek egin zituzten UDAREN bi golak.

# Aloña sailkapeneko lehen postuan da

## TOURING

**0-0**

ALOÑA MENDI

**Touring** | Urrutia, Martinez, Landa, Raul Unai, Solana (Daniel, 49. min.), Lander, Ander (Auzmendi, 71. min.), Imaz, Uriarte eta Muga.

**Aloña Mendi** | Elgarresta, Lopez, Elgarresta, Igartua, Garai, Arregil, Zubia (Astola, 45. min.), Barrena (rregi II, 79. min.), Olalde, Idigoras (Astigarraga, 79. min.) eta Henry.

**Golak:** 0-0. Oreretako Fanderia futbol zelaian ez zen golik ikusteko aukerarik izan.

## Arantzazu Ezkibel

Aloñako mutilek urrezko puntua eskuratu zuten zapatuan Oreretan. Berdinketa honi esker, sailkapeneko lehenengo postuan dira oñatiarrak, Real Unionekin 45 puntutara berdinduta.

## NORGEHIAGOKA ZAILA

Zapatukoa aukera gutxiko partidua izan zen. Bi taldeak beldurturik atera ziren Fanderia futbol zelaia, erasorako indar handirik gabe.

Zelai erdiko joko asko egin zuten eta baloiaren jabetza bi taldeena izan zen. Jokoa ona izan zela adierazi digu Orueta entrenatzaileak. Baloia ongi mugitu zuten

arren, azkeneko errematea falta izan zitzaizen bai etxekoei eta bai oñatiarrei ere.

Taldeak defentsan eginiko lana ona izan zen. Zuloak ondo estali zituzten, Touring-ekoei ate ingurura hurbiltzen utzi gabe.

Azken minutuetan, alde izan zuten korner batean, Xabier Elgarrestak gola egiteko aukera polita izan zuen, baina ezerezean geratu zen jokaldia. Azkenean, beraz, puntu banaketa egon zen Fanderia futbol zelaian.

## DATORREN ASTEAN DERBIA

Datorren astean Aloña eta UDAk derbia jokatuko dute Azkoagainen. Partidu polita izango da, bi taldeak goiko postuetan dira-eta.

## Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

### EMAITZAK

Pasaia-Orioko	8-2
Touring-Aloña Mendi	0-0
UDA-Idiazabal	----
Zestoa-Beti Gazte	1-1
Allerru-Mutriku	0-0
Mondra-Ordizia	----
Berio-Zarautz	2-3
Irun 1902-Hernani	2-1
Anaitasuna-Trintxerpe	----
Hondarribia-Real Union	1-0

### HURRENGOAK

Real Union-Pasaia
Orioko-Touring
Aloña Mendi-UDA
Idiazabal-Zestoa
Beti Gazte-Allerru
Mutriku-Mondra
Ordizia-Berio
Zarautz-Irun 1902
Hernani-Anaitasuna
Trintxerpe-Hondarribia

### SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Aloña Mendi	45	22	14	5	3	47	29
2. Real Union	45	22	14	5	3	45	22
3. Ordizia	41	21	13	6	2	37	22
4. Pasaia	40	22	10	2	10	48	28
5. Trintxerpe	40	21	12	5	4	39	29
6. UDA	39	21	11	4	6	42	21
7. Zarautz	36	22	10	6	6	42	26
8. Mutriku	34	22	10	8	4	32	29
9. Mondra	31	21	9	8	4	34	26
10. Touring	29	22	8	9	5	29	30
11. Anaitasuna	28	21	8	9	4	25	26
12. Hernani	27	22	7	9	6	28	33
13. Hondarribia	26	22	7	10	5	26	38
14. Zestoa	25	22	6	9	7	27	33
15. Berio	25	22	6	9	7	32	36
16. Idiazabal	24	21	5	7	9	25	35
17. Irun 1902	18	22	4	12	6	26	41
18. Orioko	17	22	3	11	8	26	56
19. Beti Gazte	16	22	3	12	7	23	39
20. Allerru	10	22	2	16	4	17	49

# Ibarrean ez da partidurik jokatu

*Ipintza, Ibarra eta Atxabalpeko partidu guztiak bertan behera*

Larraitx Zeberio

Asteburu honetan ez da futbol partidurik jokatu Debagoienean. Arrasateko Atxabalpe futbol zelaia

elurtuta egon da eguenetik domekara bitartean. Bergara zein Aretxabaleto futbol zelaian, berriz, izotza izan da partiduak bertan behera gelditzeko arrazoi nagusia.

Kanpoan jokatzeak zirenetako batzuk ere bertan behera geratu dira: Bergarak Deban zeukana futbol zelaia elurtua zegoelako, eta bigarren erreional mailako Antzuolak Sorraluzen zeukana ere bai, arrazoi berarengatik.



Arrasateko Atxabalpe futbol zelaian zortzi zentimetroko elurra zegoen oraindik ere domeka goizean.

JOSETXO ARANTZABAL

# Debagoiena aldatu egin da, gu ere bai



## Otsailaren 3an, Goienkaria berritua.

Informazio hobea • Diseinu berria • Orri gehiago • Kolore gehiago

# Goienkaria

• LEHENENGO TERRITORIALA

# Aloñari garaipenak azken momentuan egin zion ihes

*Oñatiarrek haserre bukatu zuten epailearen lanarekin. Azken postuan jarraitzen dute*



Erasoan segurtasun handiarekin jokatu zuten oñatiarrek.

JOSETXO ARANTZABAL

VERKOL ALOÑA  
**24-25**  
EREINTZA

**Verkol Aloña** | Guridi, Barrera, Goñi, Suarez, Moreno, Zubeldia, Elorza, Quintas, Arteaga, Garcia, Hernandez eta Manuel.

**Ereintza** | Gonzalez, Martinez, Larreategi, Mujika, Odriozola, Mendez, Eizaguirre, Urbizu, Loiola, Debre.

**Golak:** 3-3, 5-3, 8-5, 10-8, 12-11, 15-11, 16-13, 18-14, 21-17, 21-20, 22-22, 24-25.

Arantzazu Ezkibel

Aloñako neskek ligako lehen garaipena eskuratzeko aukera paregabea izan zuten zapatuan, etxekoen aurrean. Partidu guztian aurretik izan ziren arren, azken momentuan Ereintzak markagailuari buelta ematea lortu zuen eta bi puntuak Oñatitik ihes egin zuten.

Lehen zatian kantxan ondo kokatuta jokatu zuten oñatiarrek. Erasoa min handia egin zieten Ereintzako neskei, batez ere Erikak eginiko jaurtiketetan.

Oñatiarrek pibotearen jokoa ondo aprobeztatu zuten; honek zulo asko egin zituen Ereintzaren defentsan eta baita penaltiak eragin ere. Eta Aloñako neskek

ez zituzten alferrik galdu aukerak; 15. minutuan, 8-5 aurretik ziren etxekoak.

Atsedenerako gutxi falta zela, Ereintzak penaltia izan zuen alde eta 13-12 hurbildu zitezkeen. Hala ere, aukera alferrik galdu zuten eta Aloña 15-11 aurretik iritsi zen atsedenera.

Bigarren zatian gauzak berdintsu joan ziren. Aloñak ondo

etsi zuen atzean eta 4 goleko aldeaz ibili zen aurretik azken minutuetara arte.

**EPAILEAREKIN HASERRE**

Azken minutuetan epaileak hartutako erabakiek etxeko taldea kaltetu zuten. Amaierarako 5 minutu falta zirela, Ereintzak berdindu egin zuen eta azkenean 24-25 irabaztea lortu zuten.

• 1. TERRITORIALA

**Azken asteetan bezala, Bergara esku hutsik itzuli zen etxera**

DONIBANE MAJESTIK  
**31-24**  
BERGARA

Arantzazu Ezkibel

Bergarak berrito ere galdu egin zuen etxetik kanpo. Zapatuan, aurkari gogorra izan zuten bergarrek aurrean, sailkapeneko liderraren aurka jokatu zuten-eta.

Lander Juaristik adierazi digunez, lehen zatian ondo aritu zen talde mahoneroa. Defentsan gogor aritu ziren, etxekoei zailtasun asko jarritz. Aipatzekoa izan zen Jon Errasti atezainak eginiko lana. Atsedenera markagailuan atzetik iritsi arren (14-12) nahiko joko parekatua egin zutela adierazi digu Landerrek.

Atsedeneraren ostean, etxeko taldeak defentsa aldatu zuen eta 6-0ko jokoa egiten hasi ziren. Donibaneraren defentsa guztia atzean sartuta, bergarrei zail egin zitzaizen hutsuneak aurkitzea. Etxekoek defentsa sendoa erakutsi zuten, jokalaria handi eta pisutsuekin.

**JOKOA HOBETU BEHARRA**

Bergarak joko hobea egiten hasi behar du ligako azken partiduetan lasai ibili nahi baldin badu.

Landerren esanetan, taldeak partiduak irabazteko antsia handia erakusten du eta lasaiago jokatu behar dute norgehiagokak irabazi nahi baldin badituzte. Orain 8. postuan daude, bederatzirekin.

• KADETEAK MAILAKO NESKAK

## Aloñako neskek txapeldun dira

Arantzazu Ezkibel

Aloña Mendiko neskek federazioko txapelketako finala irabazi zuten atzo goizean, Oreretako Ereintzaren aurka, 19-26. Partidu bakarrean jokatu zuten finala, eta zozketa bidez, Ereintzaren etxean jokatzeari egokitu zitzaizkien.

**9 PENALTI AURKA**

Partiduaren jabe izan ziren oñatiarrek une oro. Hala ere, Aloñako entrenatzaileak bere desadostasuna erakutsi digu epaileak izandako jarrerarekin. Aloñak kontra izan zituen 9 penaltietatik 7 ez ziren penalti izan Manu-

rendako. Erabakiek, ordea, ez zuten oñatiarren jokoa eraginik izan.

Aloñak defentsa oso sendoa egin zuen Oreretan. Guztiak atzean sartu ziren, hau da, zentrala aurrera atera gabe. Eta honek eragin ona izan zuen; etxekoak jaurtiketak egiteko zuloak gabe geratu ziren-eta.

Aloñak erasoan arazoak izan zituen kantxaren egoera txarra zela-eta. Zorua oso labankor zegoen eta horrek erorketa asko ekarri zituen. Hala ere, oñatiarrek gehiago izan ziren eta txapelketa irabaztea lortu zuten. Ixone Lizarraga eta Ane Barrera izan ziren golegile nagusiak.

• LEHENENGO TERRITORIALA

## Oñatira ez zen epailerik agertu

Larraitz Zeberio

Zapatu arratsaldean Oñatiko Zubikoa kiroldegian jokatzekoa zen lehenengo territorial mailako partidua bertan behera gelditu zen. Hitzordura ez zen epailerik agertu eta partidua jokatzekoak ziren bi taldeak, Arrikruz Oñatiko Kobak eta Urnietako eskubaloia taldea 45 minutuz egon ziren zain zer egin erabaki arte.

Arrikruz Oñatiko Kobak taldeko entrenatzaile Inigo Aranburuk azaldu digu: "Atera dugun ondorioa da Federazioak ez zuela epailerik izendatu gure partidua arbitratzeko. Norma-

lean, nesken partidua arbitratzen duen epaile berak arbitratzen du mutilen neurketa ere. Epailea iritsi zenean esan zigun Federazioari abisua emanda zeukala ezinezkoa izango zitzaioala mutilen partidua arbitratzea".

**DATA BERRI BATEN BILA**

Bi taldeek hamabost eguneko epea dute orain partidua hori jokatzeko. Elkarrekin adostu behar dute neurketa zein egunetan jokatu dute.

Ez da lehenengo aldia eskubaloiko maila honetan horrelakorik gertatzen dela. Epaile falta handia dago eta taldeek arazoak dituzte egutegiak betetzeko.

**Emaitzak**

MAILAZ MAILA

**NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA**

Verkol Aloña-Ereintza 24-25

**LEHENENGO TERRITORIALA**

Arrikruz Oñatiko Kobak-Urrietako ----

Donibane Majestik-Bergara 31-24

Ford Mugarri Atsedena

**BIGARREN TERRITORIALA**

Tolosa-Arrasate Esku Baloia 22-21

**GAZTE NESKAK**

Ereintza Aguaplast-Verkol Aloña 19-26

**GAZTE MUTILAK**

Leizaran-Gatz Museoa 22-33

Tolosa-Bergara 24-16

Artxuri Jaitexea-Aloña Mendi 20-17

**KADETE MUTILAK**

Arrate-Aloña Mendi 35-20

Gatz Museoa Jakion-Egia 10-25

• LEHENENGO MAILA

# Aloñak arazo barik irabazi zuen etxean

Zapatuan bigarren ligaxkako lehen partidua jokatu zuten Gorka Judezen mutilek. Aurkari ahula izan zuten aurrean oñatiarrek

ALOÑA MENDI  
**58-51**

S.T.L. EGAÑA

**Aloña Mendi** | Goitia (4), Madariaga (10), Otamendi (5), Arregi (2), Zabaleta (26), Anduaga (10), Blanco, Gorostiaga, Garcia, Anton, Mendiola (1), Madinabeitia.

**S.T.L. Egaña** | Loiola (7), Miguel, Sagastibelza (6), Blanco, Quemada, Gurruchaga, Narbaiza (2), Aizpurua (3), Mezo (3), Iraola (10) eta Korta (8).

**Laurdenetako emaitzak:** Lehenengo laurdena 14-14. Bigarren laurdena 27-28. Hirugarren laurdena 43-36. Laugarren laurdena 58-51.

Arantzazu Ezkibel

Ondo hasi dute oñatiarrek bigarren ligaxka. Zapatuan 58-51 nagusitu ziren Donostiako Egañaren aurka.

Bigarren laurdenean beharakada txiki bat izan zuten arren, partidua arazorik gabe aurrera ateratzea lortu zuten Gorka Judezen mutilek.

Norgehiagokaren hasieran, 3. minuturako, 4-5 puntuko aldea ateratzea lortu zuten etxekoek. Baina hurrengo ordu laurdenean txarto aritu ziren oñatiko mutilek, batez ere defentsan, eta atsedenera 27-28 iritsi ziren. 8 eraso jarraian saskiratzea lortu zuten donostiarrek.

**DEFENTSA ALDAKETA**

Defentsan izandako arazoak ikusirik, Aloñako entrenatzaileak jokoa aldatzea erabaki zuen. Banakako defentsa egitetik zonakako defentsa egitera pasatu ziren etxekoak. Entrenatzaileak adierazi digunez, modu honetan, errebotea ziurtatzea nahi zuten.

Aloñakoek defentsan konfiantza berreskuratu zuten; horrek markagailuan bere isla izan zuen. Laurdenetako partzialak hauek izan ziren: 14-14, 13-14, 16-8 eta 15-13.

Bigarren zatian tentsio gehiagorekin jokatu zuten oñatiarrek. Joko azkarra egin gura izan zuten Aloñakoek. Entrenatzailearen hitzetan: "Horrela saskiratze samurrak lortu gura genituen". Baina askotan larregi azkartu



JOSETXO ARANTZABAL

Erasoan saskiratze samurrak egin zituzten.

ziren eta hori dela eta azken jaurtiketan huts asko egin zituzten oñatiarrek. Saskiratze samurrak galdu zituzten etxekoek jokaldi horietan.

**TIRO LIBREAK**

Partiduko azken minutuetan, tiro libreen bidez emaitza borbiltzeko aukera izan zuten etxekoek. Baina ez zuten asmatu jaurtiketak egiterakoan eta azkene-

an markagailuan aldea handituzerik ez zuten izan.

Aloñakoen aldetik, Iñigo Zabaleta aipatu behar du. Etxeko jokalaria 26 puntu lortu zituen, horietatik asko 3 puntuko jaurtiketen bidez. Beñat Madariagak eta Alex Anduagak hamarna puntu lortu zituzten. Datorren astean Ametsa taldearen aurka neurtu beharko dituzte indarrak Oñatiko jokalariek.

• NESKEN BIGARREN MAILA

# Erasoan galdu zuen Eskoriatzak

BERA BERA GROS  
**52-46**  
ESKORIATZA

**Bera Bera** | Baso (7), Aduriz (5), Izaguirre (9), Zubillaga (2), Aldekoa (2), Garcia (7), Colinas (6), Esteban (8), Otegi (6), eta Caso.

**Eskoriatza** | Ixone (1), Olatz (5), Carmen (2), Andi, Inma, Maite (15), Aitziber, Yaiza (6), Nerea (11), Ane (3) eta Ainhoa (3).

**Saskiratzeak:** Lehenengo laurdena 14-11. Bigarren laurdena 32-18. Hirugarren laurdena 42-31. Laugarren laurdena 52-46.

A.G.

Neurketa berdindua izan zen Eskoriatzako taldeak zapatuan Bera Bera Gros liderraren aurka jokatuakoa. Jabi Corbalen neskek ezin izan zuten garaipena eskuratu, baina partidu ona egin zuten mailako lehenengo sailkatuaren aurka jokatu zutela kontuan hartuta.

**BIGARREN LAURDENEAN EGIN ZUTEN IHES**

Defentsa lan ona egin zuten Eskoriatzakoek. Bera Bera saskiratze asko egiten dituen taldea da eta 52 besterik ez zituen egin.



ARTXIBOA

Eskoriatzako neskek akatsak egin zituzten erasoan.

Eskoriatzako taldeak huts asko egin zituen jaurtiketa libreetan eta saskiratzeetan. Uztai azpian, ordea, donostiarrek bai-

no hobeto ibili ziren. "Pozik nago jokalarien lanarekin", adierazi digu entrenatzaileak. Defentsan oso ondo aritu ziren".

• SENIOR MUTILAK

# Bergarrek erraz irabazi zuten Pasaian

DONIBANE  
**92-69**  
CANDY

A.G.

Hasieratik jarri ziren aurretik bergararrak eta 25 puntuko aldea lortzera iritsi ziren. Atsedenean, Candy taldekoek 20 puntuko tartea zuten alde.

**DEFENTSA ONA**

Defentsan lan ona egin zuten bergarrek eta horrela lortu zuten hain partzial nabarmena. Hirugarren laurdenean pasaitarrak bederatzi puntura jaitzi zuten tartea, baina azken hamar minutuetan falta asko egin zituzten eta jaurtiketa libreetan saskiratze asko egin zituzten bergarrek.

• LEHENENGO MAILA

# Partidua ez zen jokatu Urdaneta ez zelako etorri

L. Z.

Zapatu arratsaldean Iturripen jokatzea zen Mugarri Alkesa eta Urdanetaren arteko saskibaloia partidua bertan behera gelditu zen. Eguraldi arazoak tarteko bizkaitarrak ez ziren Arrasatera etorri. Partidua noiz jokatu den datozen egunotan erabakiko da.

**Emaitzak**

**MAILAZ MAILA**

**LEHENENGO MAILA**  
Mugarri Alkesa-Urdaneta atzeratu

**NESKEN BIGARREN MAILA**  
Bera Bera-Eskoriatza 52-46

**SENIOR MUTILAK**  
Donibane Saskibaloia-Candy 92-69  
Aloña Mendi-S.T.L. Egaña 58-51

**SENIOR NESKAK**  
Easo Loiola- Aloña Mendi 49-29

**GAZTE MUTILAK**  
Araneta-Aloña Mendi 62-08  
Mugarri Alkesa-Erroibide 118-60

**GAZTE NESKAK**  
Eskoriatza-Aloña Mendi 34-44

**KADETE MUTILAK**  
Mugarri Alkesa-Andraitz 20-00  
Gros Xake-Aloña Mendi 113-14

**KADETE NESKAK**  
Eskoriatza-C.D. Internacional 51-20  
Bergara-Atco. Sn. Sn. Axular 62-45

# Eskola kirola

OÑATI

## Partiduak noiz bukatuko zain egon ziren elur pilotak botatzen hasteko

*Hotzari aurre eginez,  
Oñatiko neska-mutilak  
kiroldegira hurbildu ziren*

*Kanpoko elurra zela-eta,  
pozik zeuden gaztetxoak.  
Elur bolak prest zituzten*

*Neskek areto futbolean jokatu  
zuten eta mutilak, berriz,  
eskubaloian aritu ziren*

Arantzasu Ezkibel

Hotzari aurre eginez, Oñatiko neska-mutilak Zubikoa kiroldegira hurbildu ziren zapatu goizean eskolarteko partiduak jokatzera.

Gaztetxo gehienek esan zigutenez, ez zaie axola goizean goiz ohetik altxatzea. Batzuk nahia go dute lehen orduan jokatzera, jende gutxiago egoten da-eta. Hala ere, ohean gustura geratuko zirenak bazeuden. "Nik nahiago dut partidua eguerdi partean izatea, horrela, hotz honekin ohean egoteko denbora gehiago izango nuke", esan zigun neska batek.

Baina elurra, norbaiten gustuko bada, haurrena da. Gaztetxo guztiak pozik zeuden kanpoko elurra zelako. Partidua noiz bukatu zain zeuden kalera atera eta elurretan jolasten hasteko. Denek prest zituzten txanoa eta eskularruak.

### ENTRENAMENDU GUTXI

Partidua jokatu aurretik entrenamendu gutxi egiten dutela aitortu ziguten Oñatiko gaztetxoek.

Gehien, eskolako jolas-orduetan entrenatzen dute. Eta bai neskek eta bai mutilak ere futboleko jokatzeko ohitura dute. Beste kirolak, eskubaloia edo saskibaloia esaterako, heziketa fisikoko orduetan egiten dituzte, astean egun pare batean.



ARANTZASU EZKIBEL

**Tigreak.** Alazne, Amaia, Eli, Garazi, Leire eta Lorek jokatzera dute Tigreak taldean.



ARANTZASU EZKIBEL

**Errekalde 6A.** Oihana, Leire, Maria, Veronica, Melania eta Mireia pozik aritzen dira eskola kirolean.



ARANTZASU EZKIBEL

**Urbia.** Francisco, Oier, Anje, Danel, Jon Ander eta Markel batu ziren zapatu goizean.



ARANTZASU EZKIBEL

**Koixkar.** Martin, Mikel, Antton, Aitor, Iñigo eta Luis pozik asko jarri ziren argazkirako.

### • GAZTETXOEI HOTZAK EZ DIE ARDURA



**ANJE ETA FRANCISCO** | URBIA

"Hotz egin arren, gustura etortzen gara kiroldegira partiduak jokatzera. Hori bai, bukatu bezain laster kalera joango gara elur bolak egin eta jolastera".



**MINERVA ETA MARIA** | ERREKALDE 6A

"Guk nahiago dugu partidua apur bat beranduago izatea, horrela lo egiteko denbora gehiago daukagu. Hala ere, hotzak ez digu ardura kirola egiterako orduan".



**ELI, AMAIA ETA IGONE** | TIGREK

"Nahiago dugu partidua goiz izatea, lehenengo orduan. Horrela ez da inor ikustera etortzen eta galduz gero ez da inor konturatzen. Gainera partidu ostean elurretan jolastera joango gara".



**LEIRE** | TIGREK

"Ez zait batere kostatzen ohetik jaiki eta kirola egitera etortzea. Ohean egon baino nahiago dut hemen egon".

# Iruditan



JOSETXO ARANTZABAL

**Udaberri Saria.** Barikuan Udaberri Sariko partidua izan zen Antzuolan. Gazte mailako partidua izan zen eta Olalde pilota elkarteko Mendizabal eta Azkarate bikote antzuolarrak 22-13 irabazi zion Bergarako bikoteari. Partidua nahiko berdindua izan zen. 13. tantotik aurrera, ordea, Aldai eta Larrañaga bergararrek ez zuten aurrera egiten asmatu.



JOSETXO ARANTZABAL

**Binakako txapelketa.** Bengoetxea VI.a eta Patxi Ruiz faboritoez ez zuten hutsik egin eta 11-22 nagusitu zitzaizkien Gonzalez eta Apeztegia bikoteari. Partidu ona ez izan arren, bikote urdina erraz nagusitu zen. Lizarrako atzelariak tanto bat egin eta 2 galdu zituen eta Leitzako aurrelariak 11 egin eta 2 galdu.



JOSETXO ARANTZABAL

**Aretxabaletak galdu egin du.** UDA Mercedes Benz taldeak 5-3 galdu du Tolargi taldearen aurka. UDAkoek egin zuten lehen gola, Martin Antxiak sartutakoa, baina tolosarrek bi egin zituzten eta aurretik jarri ziren atsedenerako. Bigarren zatian Beñat Zubizarretak eta Joseba Frailek gol bana egin zuten, baina ez zen nahikoa izan irabazteko.



JOSETXO ARANTZABAL

**Eskoriatzak berdindu egin du.** Lo + Bederatzi arerio gogorra zen, baina Eskoriatzakoek binako berdinketa lortu zuten Laudioko taldearen aurka. Partidu oso berdindua izan zen. Lehen zatia 1-2 emaitzarekin amaitu zen. Enriquek egin zuen penaltiz etxeko gol bakarra. Berdinketaren gola ere penaltiz etorri zen amaierarako hiru minuturen faltan.

**ANARTZ AGIRRE** | BERGARARRA, EIBAR TALDEA JARRAITZEN DUEN KAZETARIA

# "Amorrortu kargutik kentzea ez da konponbidea"

Xabier Urtzelai

## Amorrorturekin entrenatuko du gaur Realak?

Galdera zaila da hori, ez dakit ba... Dena dela, ez dut uste Amorrortu kentzea denik konponbidea. Nire ustez, entrenatzaile horrek ekainera arte egon behar luke Realean.

## Eta beste norbait aukeratzekotan?

Hainbat zurrumuru entzun ditut. Ekainera arte Gonzalo Arkonadak hartuko duela taldea, eta datorren denboraldira dagoeneko Laudrupekin zerbait hitzartu dutela edo... Horiek, baina, zurrumuruak baino ez dira.

## Derbian, Alavesek gehiago egin barik, gauzak argiago izan zituen.

Nik uste dut hori lortu dutela entrenatzaile berriarekin, badakitela zer egin behar duten. Atzo, baina, Alavesek ez zuen Realak baino askoz ere gehiago egin. Hori bai, gol aukeratan asmatu egin zuten. Dena dela, epailearen erabakiek asko baldintzatu zuten norgehiagoka.

## Fitxaketa berriak datoz, John Viafara kolonbiarra Donostian dago dagoeneko.

Orain dauden jokalariek atara behar dute Real dagoen lekutik. Jokalari berriak fitxatzea partxeak jartzea baino ez da. Bistan dago, adibidez, Skoubo moduko jokalaria bat ekartzeak on egin diola Realari, baina inork ezagutzen ez dituen jokalariai ekartzea... Real orain ez dago fitxaketa berriekin asmatuko duen zalantzan ibiltzeko.

## Eibar taldea jarraitzen, ondo ezaqutzen dituzu Cifuentes eta



XABIER URTZELAI

ETBrako egiten du lan kazetari bergararrak.

## Garitano. Zelan ikusten dituzu Realean?

Ez dute eman daukaten gutzia, Garitanok batez ere. Ez du jarraipenik izan, min hartuta egon da-eta. Zorte txarrarekin dabil, Eibarren ez zen sekula

lesionatu. Karakter aldetik, Realak behar duen jokalaria izan daiteke, baina esperientzia behar du kategoria berrian.

## Talde euskaldun bat baino gehiago dago datorren urtean Eibarrek derbia jokatzeko arriskuan.

Horretarako Eibarrek ere etsi egin behar dio Bigarren Mailari; baina lortuko dutela uste dut. Esango nuke hiru talde euskaldunetatik bat jaitsi egingo dela. Cadiz, Malaga eta Mallorca dira gure esperantza.

Eta Mallorca dator Anoetara.

**"Jokalariek atara behar dute taldea dagoen lekutik, ez fitxaketa berriek"**

## Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

### EMAITZAK

Celta-R.Madril	1-2
Osasuna-Betis	0-2
Alaves-Reala	3-1
Espanyol-Malaga	3-1
Sevilla-Vila-real	2-0
Valentzia-Zaragoza	2-2
Mallorca-Bartzelona	0-3
Cadiz-Racing	1-1
Athletic-Getafe	1-0
At. Madril-Deportivo	3-2

### HURRENGOAK

Zaragoza-Betis
Deportivo-Valentzia
Bartzelona-Athletic
Reala-Mallorca
Getafe-Alaves
Malaga-Athletic
Real Madril-Espanyol
Racing-Celta
Vila-real-Cadiz
Sevilla-Osasuna

### SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Bartzelona	52	21	16	1	4	52	16
2. Valentzia	40	21	11	3	7	32	19
3. R.Madril	39	21	12	6	3	38	23
4. Osasuna	39	21	12	6	3	27	23
5. Sevilla	35	21	10	6	5	27	20
6. Vila-real	34	21	9	5	7	27	20
7. Deportivo	33	21	9	6	6	30	24
8. Celta	33	21	10	8	3	23	24
9. Getafe	28	21	8	9	4	29	26
10. Zaragoza	28	21	6	5	10	27	27
11. Atletico	26	21	6	7	8	23	22
12. Racing	24	21	5	7	9	19	25
13. Espanyol	24	21	6	9	6	20	29
14. Betis	22	21	5	9	7	17	27
15. Reala	22	21	6	11	4	30	42
16. Cadiz	21	21	5	10	6	16	25
17. Athletic	19	21	4	10	7	24	30
18. Alaves	18	21	4	11	6	19	32
19. Mallorca	18	21	4	11	6	20	37
20. Malaga	17	21	4	12	5	24	33



## Kiniela

### KINIELA

1. Valentzia-Zaragoza	X
2. Sevilla-Vila-real	1
3. Cadiz-Racing	X
4. Celta-R.Madril	2
5. Espanyol-Malaga	1
6. Athletic-Getafe	1
7. Alaves-Reala	1
8. Mallorca-Bartzelona	1
9. Osasuna-Betis	2
10. Castellon-Lleida	2
11. Murtzia-Valladolid	X
12. Albacete-Sporting	1
13. Gimnastic-Tenerife	X
14. Almeria-Numantzia	2
15. Atletico-Deportivo	1

## Harmailatik

# Amorrorturen azkena?




Xabier Urtzelai

**Izoztuta.** Esango nuke Realeko jokalariek Mendizorrotzako zelai izoztuan zutik egoteko ere Alaveskoek baino zailtasun handiagoak izan zituztela. Joan zen astean Rafa Mungia aurreratu zuen berandu baino lehenago iritsi behar zela Alavesen lehen garaipena, eta Realaren kontra izan behar. Horrek esan gura du Gasteizekoek hamar partidutan egin ez dutena, Realekoen kontra lortu dutela. Estatistika xelebreenak gaudituko ditu aurten Realak.

**Banan-banan.** Cifuentes ala Rekarte, hori da eztabaidetako bat. Nik oso argi daukat, baina atzokoan bietako inork ez zuen postua merezi izan. Horrekin batera, ikustekoa Realeko hainbat jokalarik egindako norgehiagoka: inor ez zen ondo ibili, Novo noraezean,


Gari Urangak bat bera ere ez, Skoubo desagertuta, Nihat asmatu ezinka, Prieto baloiak galdu eta galdu... Amorrortu aulkian berriro ikusten ez badugu ere, jokalariek eta fitxaketa berriek atzo Mendizorrotzan erakutsitakoa baino gehiago egin behar dute, gertu baino gertuago dago-eta putzua. Athleticokoak eta Alaveskoak ohitu dira bertan igeri egitera, baina Realekoak?

**Osasuna.** Urtarrila osoa egin du talde gorritxoak Ligan irabazi barik, futbol zelaiari Reino de Navarra izena jarri ziotenetik, hain zuzen ere. Pentsatu behar dute zerbaitetan. Kontuak kontu, behetik gora datorren Betisendako izan ziren atzokoan puntuak. Zera esan zuen atzo Agirrek, "gola egiten duenak irabazten du norgehiagoka". Esan ezetz horri.



### Puentes Leira

Hurrengo San Mamesera itzultzen denean, Athleticoko zaleek gogotsu txalotuko dute Galiziako epailea. Erregeek ekarri ez zuten oparia eman zion zapatuan Yesteri.



### Perez Burrull

Bi jokalditan eragin zuzena izan zuen epaile kantauriarraren erabakiak: Nihat egindako gola balekoa da, ez dago jokoz kanpo. Eta, ez zuen adierazi Skoubori egindako penaltia.

## Euskal taldeen asteko hamaikakoa



Eguenean egin zuen Gasteizen Euskaltel Euskadi txirrindulari taldeak denboraldi berriko aurkezpen ofiziala. 28 txirrindularik osatzen dute aurten taldea,

tartean Euskaltelen hirugarren denboraldia duen Markel Irizar oñatiarra. Markel baikor dago. Taldekideak indartsu ikusten ditu, batez ere Haimar Zubeldia. Gustura dago

bere prestaketarekin ere. Igor Gonzalez de Galdeanoren lana begi onez ikusten du. Taldean ilusioa sortu ei du eta giroa asko hobetu dela dio.

MARKEL IRIZAR | EUSKALTEL EUSKADI TALDEKO TXIRRINDULARI OÑATIARRA

## “Martxo aldera egon behar dut nire topean, Klasiketan eta Italiako Giroan parte hartzeko”

Larraitz Zeberio

**Taldearen aurkezpena egin zenuen egunean. Zaleek zer eskatu dizuete?**

Azken bi urteak ikusita, zaleek talde ezberdin bat ikusteko gogoia dute. Jendea arduratuta dago Tourrean gauzak ez zirelako espero bezain ondo irten, eta aurkezpen eguneko galdera zen ea taldeak aurten zerbait egingo duen. Txirrindulariek dena jarriko dugu gauzak ondo egiteko.

**Horrelakoetan jendea ze animorekin hurbiltzen da zuengana?**

Denetik pixka bat. Taldeak itxaropen handiak piztu zituen. Hasieran alde genuen guztia gero kontra jarri zaigu. Bultzada bat jasotzen denean oso gertukoa da eta asko eskertzen da, baina gauzak gaizki iritertzen direnean ere presioa handia da.

**Nola bizi duzue egoera hori taldeko txirrindulariek?**

Tourrean nabaritzen da hori gehien. Ni ez naiz itzuli horretan egon, baina gertatu izan da entrenatzera atera eta alboan pasatzen den auto batetik nagi batzuk gara eta horrelakoak esatea. Ez da batera samurra.

**Iaz, taldeak poto egin zuen Tourrean, baina 11 garaipen lortu zituen bestelako lasterketetan.**

Ezin daiteke esan iazko denboraldia txarra izan zenik. Dauphiné Libéré, Suitzako itzulia eta bi etapa Espainiako itzulia... Tourrean gaizki ibili ginen, baina 15. sailkatu zen Haimar Zubeldia. Euskal txirrindularirik onena izan zen. Hobeto ibili izan gara eta normala da jendeak gehiago eskatzea, baina ez da batera erraza.

**David Herrero eta Samuel Sanchez bereziki ondo ibili ziren iaz.**

Bai, hori argi dago. Samuelek izugarriko denboraldia egin zuen, kontuan hartuta, gainera, lesio-natuta egon zela. Argi dago urte-tik urtera gora doan txirrindula-

ria dela. David Herrero, berriz, lau garaipen lortu zituen. Ez zen bakarrik gure taldeko “pitxitxia” izan. Garaipen gehien lortu zituen euskal txirrindularia izan zen. Datuak horrela ikusita beste irakurketa bat egiten da.

**Benidormetik etorri berriak zarete. Indartsu dago taldea?**

Ni harrিতuta gelditu naiz. Taldea oso-oso ondo ikusi dut. Beteranoek aipatzen dute aspaldian ez dutela taldea horrela ikusi. Igorrek dio asko hobetu behar dugula oraindik, baina ni oso baikor nago, ikusten dudalako gauzak ondo atera daitezkeela. Agian, hasieran ez gara gure topean ibiliko, baina uste dut Paris-Nizan zein Euskal Herriko itzulian taldeak maila ona emango duela.

**Haimar Zubeldia, Iban Mayo... nola ikusi dituzu taldeko izarrak?**

Esango nuke momentu honetan Haimar dela taldeko txirrindularirik indartsuena. Berez Tourrerako prestatu behar du, baina Benidormen egin dugun lanarekin oso ondo jarri da. Berak dio oraindik ez dagoela guztiz ondo eta

hobeto jartzeko asmoa daukela. Igorrek gauza asko aldatu ditu eta horrek ere bere eragina izan du. **Asko nabaritu duzue Igor Gonzalez de Galdeanoren lana? Taldearen idazkari teknikoa duzue orain.**

Sekulako moralak eta indarra eman dizkigu. Taldeko giroa asko hobetu da. Gezurra ematen du pertsona bakar batekin gauzak nola alda daitezkeen taldean! Ilusio handia piztu du taldean. Lan egiteko era dezente aldatu da. Askoz zorrotzagoa da. Asko ematen du, baina eskatu ere asko egiten du. Nik uste dut oso positiboa izango dela taldearendako. Orain, errepidean gauzak erakustea falta zaigu.

**Eta zu zeu nola aurkitzen zara?**

Nik neuk uste baino hobeto. Benidormeko kontzentrazioa joan aurretik Haimar Zubeldia, Joseba Zubeldia eta Unai Etxebarriarekin egon naiz. Denok nahiko ondo sentitzen gara. Nik martxotik aurrera egon behar dut ondo, batez ere apirileko klasikak eta Italiako Giroa izango direlako nire helburuak. Baina uste baino askoz ere hobeto nago, kontuan hartuta, gainera, negu nahiko gogorra izan dudala. Besoko operazioa zela eta ezin izan dut abendura arte entrenatzen hasi. Orain lasterketetan ikusi behar zein maila ematen dudan!

**Zein lasterketetan hartuko duzu parte aurten?**

Tirreno-Adriatico eta Milan-San Remon hartuko dut parte lehenengo. Gero, Paris-Roubaix, Flandesko itzulia eta Gante-Vewelgem klasikak. Jarraian, Aragoiko itzulia eta Giroa. Suitzako itzuliarekin eta Estatuko txapelketarekin bukatuko dut. Hau da nire egutegia. Batez ere klasiketan eta Giroan egon behar dut ondo. Klasiketan ez dut ohitura handirik, baina Igorrek hor hastea nahi du. Kontua mentalizatzea da eta geroz joatea.



Markelek otsailaren 5ean, Mallorcan, emango dio hasiera denboraldiari.

**Hirugarren denboraldia duzu Euskaltel Euskadin. Urteek esperientzia ematen du?**

Asko ikasten da. Lehenengo urtean gauzak uste baino hobeto atera zitzaizkigun. Lasterketa onetan hartu nuen parte eta balantze nahiko positiboa egin nuen. Azken bi urteotan, ordea, gauzak ez dira nahi bezala irten. Horrelakoetan ere asko ikasten da. Orain lasaigo hartzen ditut gauzak. Burua nola prestatu ikasi dut.

**Zaleei zer eskatuko zenieke?**

Taldea animatzen jarraitzeko. Une txarretan izaten dugu behar gehien. Aurten asko dugu jokoan, gauzak ez badira ondo iritertzen taldea desagertu egingo delako; eta hori oso txarra litzateke guretako zein euskal txirrindularitzarendako. Ia denon artean proiektu hau aurrera ateratzen dugun. Zaleak errepide bazterrean dauden bitartean guk dena emango dugu, merezi dute eta.

### Labur

#### Jonathan Perez 6. sailkatu da asteburuan Valentzian jokatu den Errege Kopan

Jonathan Perez arrasatearra penatuta itzuli da asteburuan Valentziatik. Errege Kopa hitzordu garrantzitsua zen atleta debagoiendarrarendako, bost metroko muga gainditzea zuen eta helburu. Eguraldi kontuak tarteko, ordea, kalbario hutsa izan zen Valentziarako bidaia. Perez eta bere taldea goizaldeko 6etan iritsi ziren Valentziara, sei orduko bidaia egiteko 15 ordu behar izan zituzten eta. “Ordu asko egin genituen autobusean eta lo gutxi eginda ekin genion lehiaketari”, esan digu Perezek. Arrasatearrak ezin izan zuen bere maila eman eta 4’60 metroko jauzia gainditzera besterik ez zen heldu.

#### Sergio Garcia oñatiarra izan zen gazte mailako azkarrena Lasarteko Herri Krosean

Pozik dago Sergio Garcia oñatiarra, atzo, domeka, Lasarteko Herri Krosean egindako lanarekin. “Hasiara gogorra egin zitzaidan, irteera oso azkarra egin genuelako, baina indarberri egin nintzen”. Aurreko taldearekin bat egitea lortu zuen Sergiok eta Markel Blanco arrasatearrarekin batera egin zituen azken hiru itzuliak. Helmugara iritsi aurretik erritmoa bizkortu zuen Sergiok eta atzean utzi zuen Markel. Arrasatearra saiatu zen azken txanpan galdutako tartea berreskuratzen, baina ezinezkoa izan zen. Hirugarren sartu zen helmugan. “Gaizki ibili naiz”, esan digu Markelek. “Gutxi gosalduta joan naiz”.

# KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Hasi da Organo Erromantiko Jaialdia Bergaran | 23
- Egubakoitzean jaso zuten saria Loramendik antolatutako literatura lehiaketako irabazleek | 24

Medin Peiron piano-jotzaile kataluniarrarekin jardun genuen Espaloian | 26

**EINSTEIN, TXIKIENEI AZALDUTA**



Amantal zuriak soinean, adi-adi jarraitu zituzten neska-mutikoen zientzialariaren azalpenak.

JOSETXO ARANTZABAL

**HAURRENDAKO ANTZERKIA** | DENBORAREN TUNELA IREKI ETA EINSTEIN EKARRI ZUEN ADOS TEATROAK ARRASATERA

## Jakin-mina bide lagun, denboran zehar egin zuten ostera Einsteinekin

*Jeinuaren heriotzatik mende erdia igaro denean, zientzialaria berpiztu eta haurrengana gerturatu zuen Ados teatroak, zapatuan Arrasaten aurkeztutako ikuskizunean*

Jon Berezibar

Badute haurrek eta zientzialariak gaitasun bat komunean: etengabe galderak egiteko grina. Haurrek, baina, beste ezaugarri bat daukate zientzialariari aurrea hartzen diena: liluratzeko ahalmena. Bi ezaugarri horiek aprobetxatuta, Ados Teatrokoek ikuskizun didaktikoa antzeztu zuten Amaia antzokian zapatuan, Einstein zientzialaria ardatz zutelana.

Denboran zehar bidaiatzeko erabili zuten karpa baten barruan Einsteinen bizitza eta aurkikuntzak aurkeztu zituzten, eta bertan bildutako neska-mutikoen aho zabalik jarraitu zituzten azalpen guztiak. Mugatua izan zen lagun kopurua, 70 bat haur,

baina saio bi egin zituzten zapatu arratsaldean. Berez, gertutasuna mantendu gura zuten zientzialari gaztetxoekin, azalpenak ulertu eta ikuskizunaren partaide izateko.

### UNIBERTSOAN BARNA

Denboraren kapsula baten sartu zituzten haur eta gurasoak, guztiak amantal zuriaz apain-apain jantziak, denboraren tuneletik agertuko zen Einstein jeinuaren zain. Mikel Sarriegi arduratzen da Alemaniako zientzialari handiaren xelebrekeria eta jenialtasuna oholtzara ekartzeaz. Unibertsoaren sorrera, erlatibitatearen teoria, atomoak... kontzeptu zailak dira ulertzeko, eta horregatik jolasean eta umorearekin

azaltzen zaizkie teoria guztiak haurrei antzerkian. Lanaren helburua, baina, ez da Einsteini buruzko doktore-tesi bat aurkeztea. Bilatzen dena da neska-

**Haurrak izaki azkar eta pentsalari gisa jotzen dira antzezlanean**

**Einsteinek jakin-mina sekula gal ez dezaten eskatzen die haurrei**

mutikoei jakiteko grina kutsatzea, zientzialariaren jarrera hartzea eta inguruan dutenarekiko interesa piztea. Einstein, gainera, bakezalea ere bazen, eta boba atomikoa asmatu bazuen ere sekula ez zen nekatu gerraren zentzugabekeria gogorarazteaz; eta jeinuaren alderdi hori ere jasotzen da antzezlanean.

Galdera-erantzun ariketa horretan igaro zuten haurrek ordubate pasatxo zapatu arratsaldean. Gainera, antzezlanean honek badu beste bertute bat haurrentzako lan guztiak izaten ez dutena: neska-mutikoak izaki azkar eta pentsalari gisa jotzen dituzte eta ez da geratzen entretenimendu soilean; aspertu barik, irakatsi egiten du.

EINSTEIN, TXIKIENEI AZALDUTA

• DENBORAREN TUNELAK EKARRI ZUEN ZIENTZIALARIA IRAGANETIK



**BIDAIA DENBORAN ZEHAR.** Iraganetik, 1950eko hamarkadatik ekarri zuen denboraren tunelak Einstein Arrasateraino. Horretarako, karpa bat jaso zuten Amaia antzokiko eszenatoki erdian. Azalpenak ahalik eta gertukoena izateko eta hurrek galderak egiteko 70 bat neska-mutikorendako edukiera mugatua izan ohi dute emanaldiek.



**EINSTEINIK GERTUKOENA.** Teoria eta ikerketez gain, Einsteinen bizitzari buruz ere hitz egiten da antzerkian. Zientzia modernoaren norabidea aldatu zuen gizona bakezale amorratua zen eta Einsteinen alderdi hori ere erakutsi gura izan dute Garbi Losada eta Jose Antonio Vitoria egileek: jeinua pertsona gertukoa zela, hain justu.



**ERLATIBITATEARENA ETA BESTE HAINBAT.** Einsteinen teoriak umeendako ahalik eta ulerterrazten egitea da antzezlanaren helburua. Erlatibitatea edo unibertsoaren etengabeko hedapenarena moduko teoriak aise ulertzen zituzten hurrek Mikel Sarriegi aktoreak emandako azalpen eta jolasekin, zientzia eta dibertsioa batuz.



**JAKIN-MINA GIDARI.** Ezaugarri bat dute komunean Einsteinek eta hurrek, guztia-ri buruz jakiteko interesa. Horregatik, galderak egitera animatzen dituzte hurrek antzerkian eta ezagutzeko grina sekula gal ez dezatela eskatu zien Einsteinek emaldiaren amaieran, hori ei da-eta zientzia guztien gakoa.

• ZER IRUDITZEN ZAIE ZIENTZIALARIA GAZTETXOEI?



MAIALEN | ARRASATE

“Banekien Einstein nor zen, baina ez nekien hainbeste gauza aurkitu zituenik, oso gizon argia izan zen”. Erlatibitatea eta unibertsoaren hasieraren gaineko azalpenei buruz galdetzerakoan, ostera, zalantza gehiago zeuzkan Maialenek. “Gauza zailak igarri zituen, baina oso gizon dibertigarria ere bazen, eta gainera, apur bat zoraturata ere bazegoela ematen du”.



AMAIA | ARRASATE

Amaiak aitortu zuenez ez zaizkio larregi gustatzen matematika eta zientzia kontuak, baina eskolan baino arreta handiagoarekin egin ei zien kasu Einsteinek azaldutakoei, “behintzat gauzak modu dibertigarrian esplikatzeko dituztonek, nahiz eta ulertzeko zailak izan ondo pasatu dugu, amantal zuria eta guzti jantzita, benetako zientzialarien moduan”.



OIHANA | ARRASATE

“Ez dut nagusitan zientzialari izan gura baina Einsteinek azaldutakoak interesgarriak iruditu zaizkit. Unibertsoa zelan sortu zen azaldu digute eta oraindik ere hazten dabilela, gelditu barik. Gauza arreak dira, batzutan ulertzeko zailak, baina oso ondo azaldu digute guztia antzerkian eta gainera jolasak eta guzti egin ditugu. Oso ondo pasatu dugu”.



IRANTZU | ARRASATE

“Berba asko egiten zuen Einsteinek eta asko zekien, beti aritzen zen pentsatzen. Niri ez zait matematika gustatzen, baina zientzietako gauzak ondo azaldu dizkigute antzerkian. Banekien Einstein nor zen, baina ez nekien hainbeste gauza asmatu zituenik. Oso gizon argia zen eta berarengatik ez balitz ez genituzke jakingo gaur egun dakizkigun hainbat gauza”.

# Argia Saria eroan dute Unai Loidi aretxabaletarrak eta Fermin Etxegoien oñatiarrak

*Loidiri ETB1-eko 'Postdata' saioagatik eman diote; Etxegoienek 'Berria'-n idazten duen 'Ekografiak' zutabearengatik jaso du*

Monika Belastegi

Egubakoitzean banatu zituzten Argia Sariak, eta tartean, ibarreko bi lagun saritu dituzte. Fer-

min Etxegoien oñatiarrari Prentsa arloari dagokion Argia Saria eman zioten, *Berria* egunkarian idazten duen *Ekografiak* izeneko telebista kritikarengatik. Bilbon

bizi den oñatiarrak hiru ikasturte daramatza zutabea idazten.

Bestalde, telebistari dagokion Argia Saria eman diote ETBko *Postdata* saioari. Bertan lan egiten du Unai Loidi aretxabaletarrak 2002. urteko urritik. Aurretik Hitzetik Hortzera eta Bertatik Bertara saioetan lan egindakoa da Loidi. Biak hala biak, oso pozik daude sariarekin.

UNAI LOIDI | KAZETARIA

## "Pozik baina sinistu ezinda nago"

**Pozik egongo zarete.**

Bai, oso pozik, baina sinistu ezinda ere bai. Sari emate ekitaldia handia da, jende garrantzitsu eta ezagun asko dago... eta horren guztiaren barruan txiki gairela iruditu zait. Azken baten, hiru minutu eta erdiko tartetxoa egiten dugu telebistan. Hainbeste lore etzun ditugu ekitaldian... Sinistea kosta egiten da eta lotsa apur bat ere igaro dugu.

**Elegantzia handiko kazetaritza egiten duzue epaimahiaren arabera.**

Ez dakit zer esan. Asko pozten gara eta norbaitek hori ikusten badu, bada, hala izango da.

**Gai bakoitzari dagokion errigistroa aurkitzen diozuela ere badiote.**

Batzuetan bai eta besteetan ez. Baina



ASTELEHENKO GOIENKARIA

horretan asko saiatzen gara. Tarte erakargarria, goxoa... egiten saiatzen gara. Eta istorioak hurbileko egiten.

**Zein da zuen sekretua?**

Meritua ez da bakarrik gurea: elkarriketatzen ditugun pertsona ere bada. Orain, saria jasota, erantzukizun handiagoa izango dugu aurrerantzean.

FERMIN ETXEGOIEN | KAZETARIA

## "Argitasuna da nire helburu nagusia"

**Pozik egongo zara.**

Bai. Ohore bat da. Argia saria jasotzea ez da edozer gauza: prestijioa, historia, serioak dira... Fakultatean irakatsi ziguten *feed-back*aren adierazle serioa izan daiteke hau. Bestalde, sari korporatiboa ere bada, kazetariok kazetariari emandakoa, eta testuinguru horretan ere ezaugu behar da.

**Komunikatzaile ona zarelako eman dizute saria, besteak beste.**

Argiakoek halaxe esan dute. Nik uste dut prozesu bat dela. Duela bi urte idazten nituen *Ekografiak* hartzen ditudanean irakurtezinak egiten zaizkit, oso barrokoak. Bakoitzak jakin behar du lehentasunak zertan jarri eta nik, orain, argitasuna dut helburu nagusizat.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

**Saria jaso izana ardura handiagoa izango da aurrerantzean?**

Pentsatu dut horretan. Baina uste dut egokiena dela naturaltasunari eustea, betiko moduan jarraitzea, norbere burua isolatuz halako gauzetatik. Pentsatzen dut garrantzitsuenak dela horretan ez pentsatzea.

# Sonic Revolution-ekoak berriz egin ziren 3.60 aretoaren jaun eta jabe

*Sonic Revolution-ekoak ondoen egiten dakitena egin zuten zapatu gauean: taula gainera igo eta jendeari gozarazi*


Jon Berezibar

Mallorcatik etorrira, The Little Kiss eta Empleado del Mes taldeek jo zuten jaialdiaren lehen zatian 3.60 aretoan. Lehenengoek, hasiberri baina grinatsu, hard-core melodikoz osatutako erreperitorioa aurkeztu zuten. Ostean, Baleareetatik Empleado del Mes etorri ziren, esperientzia gehiagorekin baina, agian, musika estiloarengatik konbentzitu ez zutenak. Hala ere, kalitaterik ez zitzairen falta Mallorcako hauei eta ez zuten emanaldi txarra egin. Kontuak kontu, zapatu gauean

Arrasateko aretora gerturatu zirenak azkeneko taldea ikusteko joan ziren, inondik inora.

**ASPALDIKO EZAGUNAK**

Izan ere, ez da gutxiestekoa Sonic Revolutionek batzen duen *dream team*-a: Safety Pines-ko Juan, Señor No-ko Xabi, El Corazón del Sapo-ko Guillermo, Obligaciones-eko Pela eta Lobo Elektriko-ko Guantxe. Ederto pasatu zuen boskoteak eta berdin ibili ziren ikusleak ere. Bertsioz josita eta zuzenekoaren jaun eta jabe, etxean jokatu zuten, eta partidua euren izan zen hasiera-hasieratik.



JOSETXO ARANTZABAL

Lehen aldiz irten dira Mallorcatik bira honetan Little Kiss taldekoak.



KONTZERTUA | BERGARAKO UDAL MUSIKA BANDA

Eguraldi hotza ez zen eragozpen izan Bergarako Udala Musika Bandaren jarraitzaileak atzoko kontzertura joateko. Erreperitorio serioa, klasikoa, egin zuen bandak, nahiz eta amaierako *Toy Story* alaitasun puntua jarri zion. Aipatzekoak dira, bestalde, *Alma de Dios* obran fliskornoaren bakarkako lana eta Miguel Gonzalez Bastidak konposatutako *Lorea* obrako oboeak. | A.G.



PAILAZOAK | PIRRITX ETA PORROTX ARETXABALETAN

Pirritx eta Porrotx pailazoen Aretxabaletako kirolegia bete zuten zapatu arratsaldetan. *Maite zaitut*, Eskoriatzan estreinatutako ikuskizuna eroan zuten bi pailazoen Aretxabaletara. Beti bezala, umeen gozagarri izan ziren haien pailazokeriak: barre, dantza, abestu, denetarik egin zuten ikusle gaztetxoek. Amaieran, nola ez, muxu sorta zabala banatu zuten Pirritxek eta Porrotxek hurbildu zitzaizkien umeen artean. | A.G.

VII. ORGANO ERROMANTIKO JAIALDIA | EGUBAKOITZEAN AURKEZTU ZUTEN JAIALDIA DONOSTIAN

# Bertan behera geratu zen zapatuan Bergarako lehen organo kontzertua

*Bergarako, Azkoitiko eta Loiolako organo erromantikoetan hamabi (lau herri bakoitzeko) kontzertu egongo dira otsailaren 12ra bitartean*

Monika Belastegi

Egubakoitzean aurkeztu zuten VII. Organo Erromantiko jaialdia Donostian. Bergarako, Azkoitiko eta Azpeitiko Udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen dute jaialdia eta helburu bikoitza du: batetik, hiru herriotan dagoen musika eskaintza zabaldu nahi izan dute antolatzaileek, eta bestetik, dauden organoen baliabideak aprobeztatu. Izan ere, Bergarako San Pedro parrokian, Azkoitiko Santa Maria La Real parrokian eta Loiolako santutegian dauden organo erromantikoak garrantzia handikoak dira. Gainera, jaialdi honekin lortu dute antolatzaileek, era berean, organoak liturgiari kanpo erakustea.



ARTXIBOA

Koroan bertan, organoaren alboan jarri izan dituzte aulkiak aurreko edizioetan, entzuleek bertatik bertara ikusi ahal izateko nola jotzen den organoa.

## HAMABI KONTZERTUK OSATZEN DUTE JAIALDIA

Otsailaren 12ra bitartean hamabi kontzertu egongo dira jaialdiaren barruan. Herri bakoitzean lau. Bergarari dagokionez, zapatuan egitekoak ziren lehenengoa, baina eguraldiarengatik ezin izan zuten Silvio Celeghin organo-jotzaileak eta Alberto Frugoni tronpeta-jotzaileak Milanetik atera. Hortaz, bertan behera geratu zen emanaldia. Antolatzaileen esanetan oraindik ez dute beste datarik erabaki

emanaldi horretarako. Beste hiru emanaldiak izango dira: otsailaren 4an, 16an eta 21ean, guztiak 20:00etan, San Pedro parrokiako hiru teklatudun Stoltz Frères organo erromantikoan. Kontzertuok doan izango dira, eta elizaren aldarean pantaila erraldoia jarriko dute entzuleek organoa nola jotzen duten xehetasun osoz ikusi ahal izateko.

## AURTENGO JAIALDIAREN BERRIKUNTZAK

Dagoeneko zazpi urte egin ditu jaialdiak -jarraitzaile taldea ere badu-, baina urtetik urtera berrikuntzak gehitzen saiatzen dira antolatzaileak.

Aurten, XIX. eta XX. mendeetako errepertorio sakratuko hainbat lan berreskuratu dituzte. Horrekin batera, ahots errepertorioak bere lekua izango du organoarekin batera; besteak beste, Anabel Aldalur mezzosopranoak eta Tina Gorina sopranoak errezitalak egingo dituzte. Easo abesbatzak ere parte hartuko du emanaldian. Horrek guztiak argi lagatzen du organoa nahikoa izan daitekeela musika interpretatzeko orduan, baina bestelako musika konbinazioak egiteko aukera ere ematen duela.

## Bergarako Stoltz Frères organoa

Stoltz Frères (Paris) organoa da Bergarako San Pedro parrokian dagoena. 1889. urtekoa da, eta 36.500 frankoren truke erosi zuten. Ordainketa hiru zatitan egin zuten: lehenengo 12.500 frankoak kontratua sinatzean ordaindu zituzten, 1897ko azaroaren 8an; beste 4.000 franko organoa Beasainera iritsi zenean ordaindu zituzten, eta azkeneko zatia Bergarara iritsi zenean -inaugurazio urtean, 1889an- ordaindu zuten. Marina Imaz, De Blanc-en alarguna-

ren dohaintza da organoa eta Bernardo de Gabiolak inauguratu zuen 1889ko martxoaren 18an. Eraiki zutenetik, diapasoak baino tonu erdi gutxiago dauka organoak. Bestetik, hiru teklatu dauzka 56 notarekin eta 30eko pedala ere bai. 1973an zaharberritu zuten Jose Maria Galdosek eta Alejandro Usabiagak. Elektrifikatu gabe dago -Gipuzkoan halako 13 daude, Azpeitia eta Azkoitikoak barne, eta bakarrak dira Europen- eta ukitu gabe dagoen bakarra da.

## Egitaraua

### OTSAILAK 4

- Giulio Mercati (organoa)

### OTSAILAK 11

- Jose Enrique Ayarra (organoa)

### OTSAILAK 18

- Easo Abesbatza
- Easo Abesbatzaren Haur Korua
- Kapera Gregorianista
- Xalba Rallo (zuzendaria)
- Xabier Irastorza (kapera zuzendaria)
- Oskar Candendo (organoa)

San Pedro Parrokian,  
20:00etan.

**Hemen**  
GARBIKETAK

Garbiketetan  
profesionalak gara

www.hemen-garbiketak.com

Intxaurtxueta 16 behea  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 48 45  
Faxa: 943 71 30 58

**BASABE**  
jatetxea

Basabe bidea z/g  
Tel: 943 79 91 84  
Aretxabaleta

## KOMUNIKAZIO TALDE BATEK

Gazteak behar ditu merkataritza departamenturako. Eskaintzen da: 6 hilabeteko lan kontratua, mugarik gabeko egiteko aukera, soldata finkoa + aldagarria. Beharrezkoa da euskara jakitea. Hobe ibilgailu propioa edukitzea. Ingurua: Debagoiena, Debabarrena, Urola.

Interesa duenak bidali curriculumua 5.124 A.P. Donostia posta kutxara.

LITERATURA | IRABAZLEAK ERABAKI DITUZTE ETA SARI EMATEA EGUBAKOITZEAN EGIN ZUTEN

# Loramendiren literatura lehiaketan herriko 212 ikaslek hartu dute parte

*Egubakoitzean jaso zituzten irabazleek Aretxabaletako euskara elkarteak antolatutako literatura lehiaketako sariak*

Monika Belastegi

Jai giroan banatu zituzten egubakoitzean Aretxabaletako Loramendi euskara elkarteak antolatutako Eskolen Arteko XVIII. Literatura lehiaketako sariak. Udaletxe zaharrean egin zuten sari ematea eta sail bakoitzeko irabazleek hartu zuten saria.

Partehartze zabala izan du lehiaketak, hain zuzen, herriko ikastetxe guztietako 212 ikaslek hartu dute parte lau mailatan banatuta: Lehen Hezkuntzako 2. zikloko 101 ikaslek; Lehen Hezkuntzako 3. zikloko 59 ikaslek; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. zikloko 38 ikaslek eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko 14 ikaslek.

Literatura arloari dagokionez, ipuina, poesia, komikia,

**Adinaren eta literatura arloaren araberako 31 sari banatu zituzten egubakoitzean**



Irudian literatura lehiaketako irabazleak udaletxe zaharrean, sari ematearen ondoren.

LORAMENDI

grabaketa, amodiozko gutuna eta e-mail bidezko gonbidapenak arloak jorratu dituzte lehiaketan partehartzaileek, adinaren arabera.

## ANTOLATZAILEAK POZIK ERANTZUNAREKIN

Loramendi euskara elkarteak kide Leire Lardizabalek esandakoaren arabera pozik daude lehiaketak izandako erantzunarekin: "Aurreko urteetan antzera neska-mutiko ugarik hartu dute parte lehiaketan eta pozik gaude izandako erantzunarekin". Horrekin batera, lanen maila polita ere azpimarratu dute antolatzaileek.

## Loramendiko XVIII. Literatur Lehiaketako irabazleak

### LH 2. ZIKLOA

- IPUINAK
  1. saria: Uxue Balanzategi
  2. saria: Nerea Meabe
  3. saria: Gorka Gonzalo

- POESIA
  1. saria: Jon Unanue
  2. saria: Haixea Arrieta

### LH 3. ZIKLOA

- IPUINAK
  1. saria: Markel Oskoz
  2. saria: Larraitz Berezibar
  3. saria: Eneko Lopez de Armentia

- POESIA
  1. saria: Adrian Aginagalde
  2. saria: Ainhoa Arantzabal
  3. saria: Jone Pagaldai

### DBH 1. ZIKLOA

- AMODIOZKO GUTUNAK
  1. saria: Maite Trigo
  2. saria: Lore Mar
  2. saria: Elene Berezibar

- PIROPOAK
  2. saria: Ainhize Guisado eta Gorka Arbulo
  3. saria: Maite Bermejo

- GRABAKETAK
  1. saria: Nagore Uriarte

- KOMIKIAK
  1. saria: Asier Iglesias
  2. saria: Idoia Guruzteaga
  3. saria: Antxon Azkarate

- E-MAIL BIDEZKO GONBIDAPENAK
  1. saria: Iraitz Prieto
  2. saria: Jokin Merino

### DBH 2. ZIKLOA

- AMODIOZKO GUTUNAK
  1. saria: Maddi Bengoetxea
  2. saria: Arantza Herruzo
  3. saria: Garazi Azkoitia

- PIROPOAK
  1. saria: Jon Barrenetxea

- KOMIKIA
  1. saria: Markel Uriarte

- E-MAIL BIDEZKO GONBIDAPENA
  1. saria: Ane Garcia
  2. saria: Asier Martinez de Agirre
- ARETXARTE SARI BEREZIA
  - Haixea Uribeetxeberria

## Punk gaua berriz ere Arrasaten

*Punk eta Oi! zaleen topaleku bihurtu zen berriz ere Arrasateko gaztetxea zapatu gaueko jaialdiarekin*

Jon Berezibar

Punk eta Oi! doinuak eta Arrasateko gaztetxea bat izan dira urte askoan. Zapatu gaua ez zen salbuespen izan eta ibarreko

punk-oi! taldeek jaialdia egin zuten. Oñatiko Triskantza, lehenik, herritik ekarritako jarraitzaile talde politarekin, arduratu zen gaua girotzen hasteaz. Ondoren Aretxabaletako Puñaladakoak etorri ziren eta amaitzeko, arrasatearrak, Aggressive Combatekoak.

Garagardoa, abesti ezagunak eta gitarra biziak, horiek izan ziren ezibesteko baldintzak, guztiaren gainetik ondo pasatzeak bakarrik balio du-eta gazte hauen kontzertuetan.



Oñatik punk ordezkari duinak izan zituen zapatuan Arrasaten.

JOSETXO ARANTZABAL

# Debagoieneko WEBGUNEAK



## AHOLKULARITZAK

**ESTRADOS**  
www.consultoria.estrados.com

## ANTZINAKO ALTZARIAK

**ZUMADIA**  
www.zumadia.com

## AKADEMIAK

**BASTIDA**  
www.bastida.es

## ALTZARIAK ETA APAINKETAK

**BZ SISTEMAS**  
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas

**MARRUBI**  
www.marrubi.com

## ARROZTEGIAK

**ARREGI**  
www.goiena.net/blogak/arregi

**AZKARATE**  
www.goiena.net/blogak/azkarate

## ASEGURUAK

**WINTERHUR**  
www.winterhur.es

## AUTOEN GARAJEAK/KONPONKETA

**AUTOS RIBEGOLA –BMW–**  
www.autos-ribegola.com

**GALLASTEGI MOTOR SPORT**  
www.goiena.net/blogak/gallastegi

## AUTO-KONTZESIONARIOAK

**QUATTRO 4**  
www.goiena.net/blogak/4quattro4

## BIDAIA AGENTZIAK

**BARCELO**  
www.barceloviajes.com

## BITXITEGI TAILERRA

**OSCAR VITORIA**  
www.goiena.net/blogak/vitoria

## ELEKTRIZITATE MATERIALAK

**SETALDE**  
www.setalde.com

## ERROTULOAK

**PANDO**  
www.goiena.net/blogak/pando

## ESTETIKA ZENTROAK

**GUZTIZ EDER**  
www.goiena.net/blogak/guztizeder

**LILURA**  
www.lilura.com

**ANGELA**  
www.angelaestetika.net

## GIMNASIOAK

**IRUDI SPORT**  
www.goiena.net/blogak/irudisport

## HAUR PARKEAK

**OKIPARK S.L.**  
www.goiena.net/blogak/okipark

## HIZKUNTZA AKADEMIAK

**CIM-OÑATI BAI & BY**  
www.cim-idiomas.com

## HOTELAK

**HOTEL MONDRAGON**  
www.hotelmondragon.com

## INFORMATIKA

**DCA COMPANY**  
www.dccompany.com

## INGENIARI GEOLOGIKOA

**HARRILUR**  
www.harrilur.com

## INMOBILIARIAK

**ANBOTO**  
www.inmoarrasate.com

**ARRIETA & SAN MIGUEL**  
www.arrietasanmiguel.com

**KOROSTI**  
www.inmokorosti-com

**UDALATX**  
www.goiena.net/blogak/udalatx

## JANTZI DENDAK

**UDALAITZ**  
www.goiena.net/blogak/udalaitz

## JATETXEAK

**BASTER-ALDE**  
www.baster-alde.com

**DRAGON ORIENTAL**  
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental

## LANTEGI ETA TAILERRAK

**TALLERES CARPinsa S.L.**  
www.carpinsa.com

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIK**  
www.goiena.net/blogak/argi-plastik

## OINETAKOAK

**KORO ZABALETA**  
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

## OPARIAK

**MERKEOPARI**  
www.goiena.net/blogak/merkeopari

## OPTIKAK

**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA**  
www.goiena.net/blogak/multiopticas

## OSTALARITZA

**GARAIA OSTALARITZA HORNIKETAK**  
www.goiena.net/blogak/garaia

## PUBLIZITATE AGENTZIAK

**ADOX**  
www.adoxnet.com

## TABERNAK

**EZKUTU**  
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly

**ONLY**  
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly

## TAXIAK

**GORKA GARAI**  
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

## UDAL ZERBITZUAK

**GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA**  
www.aizue.com

## ZERBITZU DIGITALAK

**ATAI**  
www.goiena.net/blogak/atai

Bisita ezazu:  
[www.goiena.net/merkatua](http://www.goiena.net/merkatua)

Iragarkia jarri nahi baduzu,  
deitu 943 71 23 91 zenbakira.

Bost kanaletako soinu inguratzaileren eta goi-fidelitateko garaietan, 20. hamarkadako film mutuen soinu-bandak berreskuratzen dator Medin Peiron

musikari katalana. Esperimentazioa bultzatzen du pianista eta konposatzaile honek. Soinu berrien bilaketaren bidean menturaz egin zuen topo mende hasierako

filmetako musikekin. Euskal Herrira lehen bisita joandako asteburuan egin du, Buster Keatonen *The General* filma girotu zuen-eta berak egubakoitz gauean Espaloian.

MEDIN PEIRON | PIANO-JOTZAILEA

## "Garai bateko herriko pianistek edo fanfarreek egiten zuten lana berreskuratzen saiatu naiz"

Jon Berezibar

### Aspalditik zabilta filmak musikatzeko kontu honetan?

Ni berez piano klasikoko mundutik nator, ikasketa horiek egin nituen eta zinemarako musika egin ditzakedan gauzetako bat da. Orain dela sei urte izan nuen film baten musika zuzenean jotzeko aukera, ia kasualitatez, eta asko gustatu zitzaidan. Hura ere zinema mutuko filma zen, eta ordutik mundu hau ikertzen ibili naiz modu ia autodidaktan.

### Elgetan jotako Keatonen filmeko musika egiten duzun lehena da.

Zinema mutuko musikarekiko interesa piztu zitzaidanean hura izan zen aztertu nuen lehena, baina horretaz gain beste film batzuk ere musikatu ditut: Murnauren *Nosferatu* edo Fritz Langen *Metropolis*. Eta metraje labur-reko hainbat film surrealista eta dadaistatoko musika ere jo dut, guztiak mende hasierakoak. **Alde handia dago 20ko hamarkadan eta gaur egun egiten den musikaren artean?**

Oso ezberdina zen. Aipatutako *Nosferatu* edo *Metropolis* moduko superproduktzioetako estreinaldietan operara joatea bezala izaten zen. Horietan orkestra oso batek ia hiru orduz geratu barik jotzen zuen, garai hartako filmek luzera hori izaten zuten-eta, Wagnerren operen antzera. Gaur egun zineklubetan pantaila txikiagoarekin eta DVD formatuan ikusten dira filmak eta piano-jotzaileak antzina egiten zena irudikatu behar du. Gainera, hiri handietako estreinaldietako orkestren lana gero herrietan lekuko piano-jotzaileak egin

behar izaten zuen. Sarri, gainera, aurrez filma ikusteke, inprobisatzen hasi eta interpretatu egiten zuen herriko piano-jotzaileak. Zinema mutuko filmak ez ziren pentsatu isiltasunean ikusteko, beti zegoen piano-jotzailea, organo-jotzailea edo herriko fanfarrea inguruan, saioa girotzen. Hori guztia berreskuratzen saiatzen naiz ni orain.

### Jotzen dituzun pieza guztiak filmeko originalak dira?

Behin bakarrik lortu dut jatorrizko partitura, *Entr'acte* filmekoa, Erik Satierena. Beste film guztietan sekula ere ez dut aurkitu partiturarik. Aditu eta filmoteken esku egon ohi da jatorrizko materiala eta mundu guztiak ez dauka haietara iristerik. Beraz, nik filmara egokitu daitezkeen piezak aurkitu, Beethoven edota beste klasikoen musi-

ka, edo nik neuk espresuki sortutakoak erabiltzen ditut. Gero honetako garbizaleei ez zaie batere gustatzen hori, baina hala ere nik atsegin handiz egiten dut. *The General*, adibidez, nik sekula ere ez dut musika berdinarekin ikusi; jatorrizko partiturarik badagoenik ere ez dakit, beraz beti jo behar duzu berezkoak ez diren musiketara. Kasu honetan, filmaren erdia nire erreperatorioko materialarekin egiten dut. Chopin edo Beethovenekin misteriozko zatiak betetzen ditut, eta gainontzekoa, gehien bat ekin-tza-sekuentzietan, sormenezko lanak dira, nire inprobisazio saioen emaitza.

### Eta zuzenean emanaldietan bat-batekorik egiten duzu?

Ez dut ohiturarik. Inprobisazioa sorkuntza faserako bakarrik erabiltzen dut. Filmak esaten didanaren arabera egiten dut hori, baina behin inprobisaturiko pieza bat hiru aldiz jota beti gauza berdina egiten amaitzen duzu. Askok jota, hala ere, inprobisazioa guztiaren ehuneko bi ere ez da. Badaude zinema mutua-ren kontu honetan espezialistak direnak, eta horiek, jazz mintzairara edo bestela, inprobisazi-ora jotzeko joera handiagoa daukate. Nik oso tarte gutxi lagatzen diot halabeharrari nire saioetan. **Gainera, nahiko hertsia izango da interpretazioa, filmak agindutakora mugatu beharko zara, ezta?**

Horretarako ere ikusmolde asko daude, nik denetarik ikusi dut. Askok filma aitzakiatzat erabiltzen dute sormen hutsezko emanaldia egiteko, eta beste batzuk jatorrizko materialean oinarritzen dira gehiago. Nire

"Oso tarte gutxi uzten diot inprobisazioari, nahiz eta jotzen dudana sarri sormenezkoa izan"

"Gero eta eskaera handiagoa dago. Antza, zinema mutua-ren *revivala* bizi dugu azkeneko bost urteetan"



JOSETXO ARANTZABAL

Euskal Herrian lehen aldiz Elgetan jo zuen Medinek egubakoitzean.

kasuan, eta ahal dudana eta modurik apalenean, irudiaren zerbitzura egoten saiatzen naiz, ahalik eta modu fidelenean egokituz, unean uneko erabakiak hartuta, noski, momentuaren arabera. **Nolako harrera izaten du zine mutua?**

Orain bost-hamar urtetik hona haziz joan da interesa, *revival* gogoia dago, antza. Zineklub asko dago, klasikoak berreskuratzen direnak eta hor daukagu txokoa guk. Programazio kultural edo alternatiboagoan batez ere.

## Zinemara joate hutsa ikuskizun bilakatzen zen garaia

*The General* filma estreinatu zen garaian ohiz kanpoko gertakaria izaten zen zinemara joatea. Emanaldiak festa zaratzu eta itzela izaten ziren, eta giro haien oihartzunak ekarri zituen egubakoitz gauean Medin Peironen Espaloira.

Kanpoan, elurtearengatik, ez zen giro eta horregatik, agian, gutxi izan ziren piano-jotzaile katalanaren maisutasuna bertatik bertara ikusteko aukera baliatu zutenak. Buster Keatonen lan ezaguna oinarri, filmaren jarraipen musikatu zehatza egin zuen Medinek, maisutasunez, unean-unean filmak eskatzen zuena pianoarekin ederto josiz. Egubakoitzeko saioan, ohi

bezala, Beethoven edo Erik Satieren piezak jo zituen. Filmeko pieza nagusia Scott Joplinen *Solace* da eta harekin amaitu zuen emanaldia. Publikoarentzat ezagunak diren piezak berak sortu eta egokiturikoekin nahasten ditu, filmak eskatzen duenaren arabera interpretazio bat edo beste eginez. Honela, mende hasierako pianisten jotzeko era imitatzen du Medinek emanaldietan, filmaren adierazpen dramatikorantz joaz. Momentu lasai eta pausatua primeran ezkondu zituen une bizi eta arinagoekin, beti ere filma zapaldu barik, eta ukitu berezia eman zien sekuentzietan, neurrikoa eta abilezia handikoa.



## III. Korrika-AEK beka deialdia egin dute, euskal arte eszenikoak indartzeko

*Lana ekoizteko, 29.000 euro emango du AEK-k, eta Korrika Kulturalean egiteko emanaldi bakoitzeko, 3.000*

Leire Kortabarria

III. Korrika-AEK bekaren oinarriak eta lehiaketako deialdia egin du Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak. Euskarazko arte eszenikoak bultzatzea, euskal sortzaile berriei bidea egitea eta Korrika Kulturalean edo bestelako kultura ekimenetan jendaurrean aurkezteko moduko lanak sortzen laguntzea, horiek dira bekaren helburuak. Korrika 15en Korrika Kulturari dagokio beka deialdi hau.

AEK-k eta Korrikak bi erataria lagunduko diote saria irabazten duen lanari: batetik, lana ekoizteko 29.000 euroekin; bestetik, Korrika Kulturalean

barnean lanaren emanaldi kopuru bat egiteko emanaldi bakoitzeko 3.000 euroekin.

### OINARRIAK

Eszenatoki gainean aurkez daitezkeen edozein ekitaldi motak du beka jasotzeko aukera; baldintza bakarrak dira euskaraz izatea eta inoiz aurkeztu gabe izatea. Gaia libre da.

Proiektuak aurtengo apirilaren 24a eta 28aren bitartean aurkeztu behar dira AEK-ko hiriburuetako edozein egoitzatan. Honako agiriak aurkeztu behar dira: curriculum laburra, proiektuaren azalpena, eta proiektuaren aurrekontua. Epaia ekainaren 29an jakinaraziko dute, eta irabazleek azaroaren 30era bitarteko epea izango dute ikuskizun osoa gertatzeko. Oinarri osoak [www.aeknet.net](http://www.aeknet.net) webgunean daude.

### AURREKO IRABAZLEAK

Korrika-AEK bekak babestuta, aurreko edizioetan honako lanak argitaratu dira: *Metxa, Euskararen Zazpi Bekatu Nagusiak* eta *Ezekiel*.

## Labur

### Jose Felix Igartuaren paisaiak ikusteko aukera dago eguna arte

Margolan erakusketa dago Oñatiko kultura etxean eguna, otsailaren 2a, bitartean. Jose Felix Igartua da egilea. Batik bat, paisaiak osatzen dute bilduma hori; paisaia asko ezagunak dira, gainera. Egunero-egunero dago zabalik, 18:30-20:30 orduetegan.

Jose Felix Igartua Ermuan jaio zen. Azken 35 urteotan diseinu grafiko, inprimategi eta argitaletxe munduan lan egin du. Marrazki-irakasle ere izana da eta porlanezko beiralegien proiektuak ere egin izan ditu. Hainbat erakusketa egin ditu, bakarrik edo taldean.

### Txalaparta, alboka, argazkigintza digital eta sabel dantza ikastaroak

Gazteendako ikastaroak antolatu ditu Arrasateko Gazte Bulegoak. Matrikula egiteko aukera dago gazte bulegoan (943 77 00 65; [gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net](mailto:gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net)). 20 euro da, 12 ikasle eta langabeen kasuan.

Txalaparta, alboka, argazkigintza digitala eta sabel dantza landuko dituzte. Denetan, hasiera eta sakontze mailak izango dira, argazkigintza digitaletan izan ezik; hor, bakarrik hasiera maila landuko dute.

### Aratusteetarako euskal dantza bat ikasteko entseguak etzi hasiko dira

Aratusteetarako prestatzen hasi dira antzuolarrak, eta, horri begira, aratusteetako dantza ikasteko jardunaldiak antolatu ditu Oinarin dantza taldeak. Lehenengo entsegua etzi, eguaztana, izango da, Eguzki auzoko lokalean, 20:30ean. Nahi duten herritar guztiei dei egiten diete antolatzaileek entsegetara joateko eta aratusteetan denok batera dantza egiteko.

Euskal dantza bat aukeratuko du Oinarinek, denok ikasteko modukoa. Herriko kaleetan mozorrotuta dantza egitekoa izango da.

## Hitzordukak



### EUSKAL HERRIKO MUSIKA TRESNEN ERAKUSKETA ESKORIATZAN |

Ibarraundi museoa zabalduko dute erakusketa egunean, otsailaren 2an

Euskal Herriko musika tresna tipiko asko batzen dituen erakusketa zabalduko dute egunean, otsailak 2, Eskoriatzako Ibarraundi museoa. Arrasateko Etxaluze baserriko Lorentzo Altubek Eskoriatzako Udalarari utzitako tresnak dira guztiak, berak urte askoan baserrian batutakoak. Eskoriatzako

Udalak hamar urtez izango du ondare hori, eta, lehenengo gauza, erakusketa antolatu du.

Talde batzuek bisita gidatuak egin dituzte, baina publikoarendako egunean zabalduko dute, honako ordutegiarekin: astegunetan, 17:30-19:30; asteburuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

### ZINEMA |

- **King Kong** filma emango dute Arrasaten  
Amaia antzokian emango dute film hori gaur, astelehena, 20:30ean.
- **Las crónicas de Narnia** filma ikusteko aukera Oñatin  
Kultura etxeko zinema aretoan emango dute aipatutako filma gaur, astelehena, 19:30ean.
- **Delicatessen** filma ikusteko modua izango da Elgetan  
Etzi, eguaztana, emango dute film hori Espaloia antzokian, 21:30ean.
- **El niño** filma emango dute Arrasateko zineklubean  
*El niño* delako filma emango dute egunean, otsailak 2, Amaia udal antzokian, 20:30ean.
- **Perder es cuestión de método** delako filma Oñatin  
Egunean, hilak 2, emango dute film hori zineklub saioan, Oñatiko kultura etxeko zinema aretoan, 20:00etan.

### ERAKUSKETAK |

- **Iñaki Moreno Ruiz de Eginoren erakusketa**  
Iñaki Moreno Ruiz de Eginoren erakusketa zabalduko dute egubakoitzean, hilak 3, Aroztegi aretoan. Bisita ordutegia hauxe da: astegunetan, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30, eta domeketan, 12:00-14:00.

### LEHIAKETAK |

- **Aratusteetako kartel lehiaketak daude bi herritan**  
Aratusteetako kartel lehiaketa deitu dute Arrasateko eta Bergarako udalek. Arrasateko edozeinendako dago zabalik. 50 x 70 cm-ko kartelak eskatzen dituzte, bertikalak, honako testuarekin: *2006 Inauteriak Arrasate*. 400 euroko saria dago jokoan. Bergarako han bizi edo erroldatuta dagoen edozeinendako da. Kolore eta teknika librea egindako kartelak izango dira, hori bai, 50 x 35 cm-ko kartoizko oinarrian, eta *Aratusteak 2006, Bergara* testuarekin. Irabazleak 300 euroko saria jasoko du.
- **Emakumearen Eguneko kartela aukeratzeko sariketa**  
Emakumearen nazioarteko eguneko kartel lehiaketa deitu du Emakume Txokoak. Aurtengo leloa hau da: *Zainduak izateko eskubidea eta emakumeen intsumisioa*. Lanak otsailaren 17a baino lehenago aurkeztu behar dira Udala Emakume Sailean.
- **Emakumeak Arrasateko Historian film labur sariketa**  
*Historian* delako film labur lehiaketa deitu du Emakume Txokoak. Ekaina arte dago lanak aurkezteko aukera. Argibideak, 943 79 41 39 telefonora deituta.

### IKASTAROAK |

- **Denetarikoz dantzen ikastaroa dago Antzuolan**  
Denetarikoz dantzen ikastaroa emango dute otsailaren 11tik aurrera, hilean behin, 16:30-19:00. Izenematea otsailaren 3an bukatuko da.
- **Finantza erak-ekin lan egin Internet ikastaroa**  
*Finantza erak-ekin lan egin* delako Internet ikastaroa emango dute Aretxabaletako KZgunean. Lehenengo zatia gaur, astelehena, emango dute, eta bigarrena, bihar, martitzena, 18:00-20:00 orduetegan.
- **Posta elektronikoaren gaineko mintegia Arrasaten**  
Posta elektronikoaren gaineko mintegia antolatu du KZgunean etzirako, eguaztana, 11:00-13:00 orduetegan.
- **Flashget ikastaroa emango dute Eskoriatzako KZgunean**  
Flashget delako Internet ikastaroa emango dute Eskoriatzan egubakoitzean, hilak 3, 11:00-13:00 orduetegan.
- **Dantza afrikarren ikastaroa Oñatiko Gazteklubean**  
Dantza afrikar ikastaroa antolatu dute otsailaren 25ean eta 26an egiteko, baina izenematea otsailaren 10ean bukatuko da. Horretarako, jo Gazte Informazio Bulegora (10:00-13:00 edo 17:00-20:00). Telefonoa: 943 71 82 57; e-posta: [gip@oinatigazteklubu.com](mailto:gip@oinatigazteklubu.com).

**Eguraldia**



**Temperatura hotzak eta euria izango dira nagusi astean barrena**

Haizeak ekialdetik joko du eta tenperaturak igotzeko joerari eutsiko dio. Hala eta guztiz ere, hotz egingo du gaur ere, batez ere goizean. Lainotsu egongo da, batik bat goizean, eta euria ere egingo du. Arratsaldean ostarre batzuk agertuko dira. Bihar ere ostarretxo batzuk izango ditugu, baina euria ere egingo

du. Eguaztena ere euritakoa hartzeko moduko eguna izango da. Zeru grisak izango ditugu lehenengo orduetatik eta arratsaldean euri zaparradak izango dira. Eguena eta egubakoitza ere antzekoak izango dira. Eguraldiak ez du hobera egingo eta tenperaturak jaitsi egingo dira pixka bat.

**Goardiako farmaziak**

**ARRASATE**

<b>Astelehena, 30</b>	Azkoaga	Iturriotz, 17 (943 79 79 99)
<b>Martitzena, 31</b>	Corcuera	Maisu Aranbarri, 1 (943 79 22 26)
<b>Eguaztena, 1</b>	Irizar	Erquin, 11 (943 79 12 39)
<b>Eguena, 2</b>	Amezua	Santa marina, 32 (943 79 09 74)
<b>Egubakoitza, 3</b>	Morales	Araba etorbidea, 14 (943 79 18 65)

**BERGARA**

<b>Astelehena, 30</b>	Estella	Matxiategi, 5 (943 76 19 63)
<b>Martitzena, 31</b>	Mozos	Iparragirre, 2 (943 76 12 15)
<b>Eguaztena, 1</b>	Camacho	Oxirondo, 4 (943 76 11 74)
<b>Eguena, 2</b>	Zabala	Barrenkalea, 25 (943 76 16 87)
<b>Egubakoitza, 3</b>	Guallar	San Antonio, 5 (943 76 11 05)

**OÑATI**

<b>Astelehena, 30</b>	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)
<b>Martitzena, 31</b>	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)
<b>Eguaztena, 1</b>	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)
<b>Eguena, 2</b>	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)
<b>Egubakoitza, 3</b>	Barrebetxea	Kale Zaharra, 1 (943 78 01 22)

**ARETXABALETA**

<b>Astelehena, 30</b>	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
<b>Martitzena, 31</b>	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
<b>Eguaztena, 1</b>	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
<b>Eguena, 2</b>	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
<b>Egubakoitza, 3</b>	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)

**Telefono jakingarriak**



**OSASUNA / LARRIALDIAK**

OSAKIDETZA (Larriald.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA ( Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoa	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63

Bergara	943 77 91 06	Laixan / Oñati	943 71 63 11
Eskoriatza	943 71 44 07	Hondakindegia Alternatiboak	
Leintz Gatzaga	943 71 47 46	Arrasate	943 77 11 43
Oñati	943 78 04 11	Bergara	945 76 44 42
		Oñati	943 78 36 67

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 77 12 28
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Jardun / Bergara	943 76 08 19

**Zozketak**

**BONOLOTOA**

Astelehena, 23	2 • 11 • 19 • 31 • 33 • 39
Osagarria: 27   Itzulketa: 15	
Martitzena, 24	6 • 9 • 14 • 17 • 28 • 41
Osagarria: 13   Itzulketa: 4	
Eguaztena, 25	10 • 15 • 20 • 32 • 41 • 44
Osagarria: 16   Itzulketa: 8	
Egubakoitza, 27	1 • 6 • 11 • 46 • 47 • 48
Osagarria: 37   Itzulketa: 3	

**ONCE**

Astelehena, 23	20.418
Martitzena, 24	68.900
Eguaztena, 25	53.562
Eguena, 26	66.612
Egubakoitza, 27	03.508
Kupoitzarra (061 seriea)	
Domeka 29	13.491
Kupoitzarra (023 seriea)	

**LOTERIA PRIMITIBOA**

Eguena, 26	9 • 10 • 14 • 21 • 34 • 46
Osagarria: 32   Itzulketa: 1	
Zapatua, 28	1 • 15 • 23 • 25 • 32 • 34
Osagarria: 31   Itzulketa: 5	
Zapatua, 28 (Saritzarra)	7 • 19 • 32 • 38 • 45
Itzulketa: 6	

**Gazte zerbitzuak**

**BEKAK |**

• Europar Batasunean ikasketak egiteko 550 faro beka. Hezkuntza, eta Zientzia Ministerioa. Espainiako edozein unibertsitateko azken urteetako ikasleentzat. Epea: Otsailak 28.  
• **Kantua.** Reina Sofia Musikako Goi Eskola. 2006-2007 ikasturtean kantu modalitatean ikasteko dirulaguntzak. Epea: Otsailak 15.

**EKINTZAK |**

• **Eski-asteburuak.** Besaide mendizale elkarteak antolatuta. Urtarrilak 21-22tik Apirilaren 8-9 bitartean asteburuko irteerak Formigalera. Izenematea eta informazio gehiago astelehen, astearte eta eguaztenetan 18:30-19:30, Garibai 3ko egoitzan edota 943 77 3066 telefonoan.

**LEHIAKETAK |**

• **Martxoak 8 kartel lehiaketa 2006.** Zainduak izateko eskubidea eta emakumeen intsumisioa da leloa. Teknika librea eta gehienez 50X70cm. Arrasateko Emakume txokoak antolatuta. Epea: otsailak 17.  
• **Film laburren lehiaketa.** Mostoleseko Udala. FIC Mostoles Film Laburren III. Nazioarteko Jaialdia 2006. Film laburrak 2005eko urtarrilaren 1aren ondoren eginak izan behar dira eta ezin izango dituzte 30 minutuak gainditu. Epea: Otsailak 8.  
**IKASTAROA |**  
• **Autobabes ikastaroa,** eskulanak, hip/hop funky dantza ikastaroak eta orratz-lanen ikastaroa. Ekin Emakumeak Elkarteak antolatuta. Izenematea zabalik.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**  
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65  
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net  
**BERGARAKO GAZTEENDAKO**  
INFORMAZIO GUNEA:  
Kultura etxea. 943 77 91 57  
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO**  
INFORMAZIO GUNEA:  
Foruen plaza 4. 943 71 82 57  
gip@oinatigazteleku.com





**ASTELEHENKO**  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

**Antzuola:**

- Altzarte okindegia
- Martin okindegia

**Elgeta:**

- Kioskoa

**Bergara:**

- Bolintxo okindegia
- Ogizun okindegia
- Konde okindegia
- Olabe okindegia
- Mizpildi okindegia
- Plazako Kioskoa
- Txurrerua Kioskoa

**Arrasate:**

- Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
- Balantzategi kioskoa
- Portaloiko kioskoa
- Usue paper denda
- Bolintxo Okindegia
- Kurruko okindegia

**Aretxabaleta:**

- Errasti kioskoa
- Ibarra estankoa

**Eskoriatza:**

- Dorleta liburudenda

**Leintz Gatzaga:**

- Labidea

**Aramaio:**

- Plazako kioskoa

**Oñati:**

- Haritza Kioskoa
- Ibarrondo Kioskoa
- Eskolatxo okindegia
- Arantxa okindegia
- Irizar okindegia
- Ogibari okindegia
- Olakua okindegia
- San Lorentzo okindegia
- Errota okindegia

## Zorion agurrak



ARRASATE  
**Unai Okina**  
Urtarrilaren 26an, 15 urte. Zorionak, eta muxu handi bat! Familiakoak.



ARRASATE  
**Paula Heriz**  
Urtarrilaren 26an, 16 urte. Berandu, baina seguru, zorionak! Musakolakoak.



ARRASATE  
**Alaika Igarza**  
Urtarrilaren 26an, 26 urte. Zorionak eta urte askotarako! Lagunak.



ARRASATE  
**Mikel Zumalde**  
Urtarrilaren 27an, 7 urte. Zorionak! Familiako guztien partetik.



ARRASATE  
**Mikel Santiago**  
Urtarrilaren 28an, 7 urte. Zorionak! Patxo bat, etxeko partetik.



ARRASATE  
**Joseba Gartzia**  
Urtarrilaren 31n, urtebetetzea. Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE  
**Txomin Frutos**  
Otsailaren 4an, 3 urte. Zorionak, pototo! Etxeko partetik.



BERGARA  
**Nagore Iñurrategi**  
Urtarrilaren 21ean, urtebetetzea. Zorionak! Arrasateko taldea.



BERGARA  
**Jokin Alfaro**  
Urtarrilaren 24an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako! Gurasoak eta Peio.



BERGARA  
**Ibon Rodriguez**  
Urtarrilaren 25ean, urtebete. Urte askotarako! Aittita, amama eta amona.



ARRASATE  
**Eider Prieto**  
Urtarrilaren 27an, 3 urte. Zorionak, Izar, Aitor, Naia eta Josun partez.



BERGARA  
**Gorka Lazpiur**  
Urtarrilaren 27an, 4 urte. Zorionak eta muxu pila bat! Etxekoak.



BERGARA  
**Unai Irizar**  
Urtarrilaren 29an, 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko partez.



BERGARA  
**Peio Alfaro**  
Urtarrilaren 30ean, 13 urte. Zorionak eta urte askotarako! Gurasoak eta Jokin.



BERGARA  
**Itsaso Goenaga**  
Urtarrilaren 30ean, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak eta Maddi.



BERGARA  
**Jone Ibarra**  
Urtarrilaren 30ean, 5 urte. Zorionak! Etxekoak, bereziki Gorka.



BERGARA  
**June Igarza**  
Urtarrilaren 31n, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA  
**Itziar Mujika**  
Urtarrilaren 31n, 4 urte. Zorionak. Familiakoak batez ere Mikel eta Nerea.



BERGARA  
**Julen Bilbao**  
Urtarrilaren 31n, 6 urte. Urte askotarako! Etxekoak, bereziki Gaizka eta Iker.



BERGARA  
**Malen Garitano**  
Otsailaren 1ean, urtebete. Zorionak! Gurasoak eta familia osoa.



BERGARA  
**Joseba Carnicero**  
Otsailaren 6an, 8 urte. Zorionak eta muxu bat! Amama eta gurasoak.



BERGARA  
**Miren Carnicero**  
Otsailaren 6an, 8 urte. Zorionak eta muxu bat! Amama eta gurasoak.



ARETXABALETA  
**Julita Gonzalez de Martin**  
Urtarrilaren 29an. Zorionak familia eta bereziki Leire.



ARETXABALETA  
**Josu Aizpurua**  
Urtarrilaren 30ean, 5 urte. Zorionak eta muxu bat. Etxekoak eta lagunak.



ARETXABALETA  
**Nikole Gonzalez**  
Urtarrilaren 31n, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat. Etxekoak.



ARETXABALETA  
**Ekaiz Irusta**  
Otsailaren 5ean, 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Etxekoak.



ANTZUOLA  
**Jon Cotillas**  
Urtarrilaren 31n, 7 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta batez ere gurasoak.



OÑATI  
**Maren Irazabal**  
Urtarrilaren 31n, urtebete. Zorionak famili guztiaren partetik.



ESKORIATZA  
**Lydia Ruiz**  
Urtarrilaren 30ean. Zorionak eta urte askotarako! Yogako ikasleak.



ESKORIATZA  
**Flor Gallego**  
Otsailaren 1ean. Zorionak. Senarra, seme-alabak, eta Alex eta Mikel ilobak.

**Zorionak!**  
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez!  
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaiozu ezusteko ederra!

## Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



**Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, ARRASATE IRRATIAK egunero ematen dizu aukera hori.**

**Bidali eskaria: [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) helbidera edo deitu 943 71 17 31 telefonora.**

Egunero,  
zorion agurren tarte  
**ARRASATE IRRATIAN**

**FM107.7**

**ARRASATE IRRATIA**

## Hildakoak

- Juan Odriozola Odriozola**  
Bergaran, urtarrilaren 27an. 76 urte.
- Dolores Egia Legorburu**  
Bergaran, urtarrilaren 27an. 84 urte.
- Bernardo Galeano Liberal**  
Antzuolan, urtarrilaren 27an. 60 urte.
- Agustina Bidegain Agirre**  
Aretxabaletan, urtarrilaren 27an. 79 urte.
- Tomas Iñurrieta Egidon**  
Arrasaten, urtarrilaren 28an. 73 urte.

## Jaiotakoak



**Luken Ormaetxea Artola**  
Arrasate • 2,700 Kg. Urtarrilak 23. Gurasoak: Itxaro eta Joseba (Arrasate). Argazkian: Luken, amaren besoetan, amari begira dagoela.




**Aimar Agirre Lete**  
Arrasate • 3,456 Kg. Urtarrilak 26. Gurasoak: Jone eta Jabi (Arrasate). Argazkian: Aimar, amaren besoetan, bapo lo dagoela.



**Asier Zaloña Murgoitio**  
Aretxabaleta • 3,255 Kg. Urtarrilak 26. Gurasoak: Ainhoa eta Aitor (Aretxabaleta). Argazkian: Asier, amaren besoetan, bapo lo dagoela.



**Maddi Gabilondo Herce**  
Eskoriatza • 3,245 Kg. Urtarrilak 29. Gurasoak: Maider eta Asier (Eskoriatza). Argazkian: Maddi, aitaren besoetan, ama zain duela, bapo lo.



**ESKELAK**  
ASTELEHENEKO  
GOIENKARIAN

85 euro  
**943 25 05 02**

**Gaur irratian**

**Arrasate Irratia**

FM 107.7

'Igo autobusera' | 10:00

**Henry Bazan jokalaria boliviarrari elkarrizketa**

Kirolen geltokian, astelehenero moduan, futboleko eta pilotako kontuak jorratuko dituzte Juanito Arriaranekin. Era berean, Aloiñako Henry Bazan futbol jokalaria boliviarra eta Aitor Orueta entrenatzailea gonbidatu dituzte irratsaioa.

**Oñati Irratia**

FM 107.4

'Egurdiko saioa' | 12:30

**Katea-Legaia enpresaren gainean berbetan**

Katea eta Legaia lantegiek bat egin zuten urte hasieran eta horri buruz berbetan arituko da Bittor Andonegi enpresako ordezkaria. Gutxitasunen bat duten 1.000tik gora lagun dabilta Kateak Gipuzkoan dituen 13 tailerretan.

**Euskadi Iratia**

FM 104.4

'Faktoria' | 10:30

**Zarauzko gaztetxea aztergai**

**Radio Euskadi**

FM 98.2

'Boulevard' | 10:30

**Pascual Maragalli elkarrizketa**

**Herri Irratia**

FM 99.8

'Kalez kale' | 11:30

**'Kantu eta jolasen' DVD aurkezpena Antzuolan**

**GOITB programazioa**

Astelehena, 30



**Pilota eta futbola 'Harmailatik' saioan 21:15**

Asteburuko kirol ekitaldien gainbegiratu egingo du Julen Iriondok, bailarako taldeei eta binakako pilota txapelketari aipamena eginda.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Behazulo.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:30 M1.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Munduari bueltaka: India.
- 15:30 M1. Eguraldia eta burtsa tarte.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ilunpean.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 M1.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Didjeridu.
- 17:30 Motzean.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Berbaire.
- 18:15 Jaun ta jabe.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 16 mm.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Harmailatik.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Harmailatik.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Jazz zikloa.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Amaiera.

Martitzena, 31



**Gonzalo Tejadaren kontzertua 17:00**

Jazz musika gogoko dutenek Gonzalo Tejadaren kontzertuaz gozatzeko aukera izango dute. Kontrabaxua jotzen du Gonzalo Tejadak.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Jazz mintegia.
- 14:15 Zera dio.
- 14:30 M1.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Elkartasun bideak.
- 15:30 M1.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Harmailatik.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 M1.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albisteak.
- 17:00 Jazz.
- 17:30 Danbaka.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea.
- 18:15 Munduari bueltaka: India.
- 18:45 Albisteak.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Harmailatik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Ilunpean: Jon Odriozola.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Berbaire.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Behazulo.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 1



**Gorka Egiaren 'Hego haizea, ero haizea' 22:15**

Amagoia Lasagabasterrek aurkezturiko 16 mm saioan, Gorka Egiak zuzenduriko *Hego haizea, ero haizea* film laburra ikusteko aukera izango da.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:30 M1.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Teknopolis.
- 15:30 M1.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Behazulo.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 M1.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 16 mm: *Zera dio eta Motzean*, Olatz Zugasti.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Didjeridu.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 16 mm: *Hego haizea, ero haizea*.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Erreportajea.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Amaiera.

Eguena, 2



**Narrea Elortza 'Didjeridu' saioan 22:15**

Zarzuela abeslaria eta ingeniaritza ikaslea gonbidatu dute *Didjeridu* saioa. Asteroko sexologia eta Internet atala ere ikusgai.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea.
- 14:15 Motzean.
- 14:30 M1.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Jaun ta Jabe.
- 15:30 M1.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Jazz mintegia.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 M1.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 16mm.
- 17:30 MKT musika.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Elkartasun bideak.
- 18:15 Iparrorratza: Danubio.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Jaun ta jabe.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Didjeridu.
- 22:45 Albisteak.
- 23:00 Berbaire.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Amaiera.

Egubakoitza, 3




**Debagoieneko albisteak 19:45**

Deiane Arrietak eta Julen Iriondok aurkeztutako albistegietan ibarrean gertatutakoak jorratuko dituzte astean zehar, goizez eta arratsaldez.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:30 M1: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Iparrorratza.
- 15:30 M1.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 M1.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albisteak.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Eltze beroa.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albisteak.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Jazz mintegia.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Behazulo.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 16 mm.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

**Kamera aurrean**



**"Pintura espresio bidea da, musika bezala; etengabe ari gara forma berrien bila, egonezinak bultzatuta"**

JOSE FELIX IGARTUA |  
PINTOREA  
Berriak, 2006-01-25



**"Herritarren ekimenekin lortu behar dugu garapen ekonomikoa, kulturala eta soziala"**

ERNESTO UNZURRUNZAGA |  
OÑATI BIZIRIK  
Berriak, 2006-01-26

**'Hego haizea, ero haizea'**  
**Gorka Egiaren film laburra**

16 mm saioa

Eguaztenean, otsailaren 1ean, 22:15ean



**Ikustekoa!**

Aurkezlea: Amagoia Lasagabaster

Urtarrilak 30a: 073 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

**txokoa**

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, urtarrilak 30, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!  
*Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

## BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

**Harpidetza kuota, 35 euro**

2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.

Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

"ISTILU" etxeko kamisetak

- Miren Errasti Kortazar (Eskoriatza)
- Kepa Urteaga Garcia (Antzuola)
- Amaia Zuazua Rodrigo (Arrasate)

Bi gonbidapen Donostiako **AQUARIUMa** bisitatzeko (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Imanol Galdos Igartua (Oñati)
- Beñat Iñarra Lasa (Bergara)

## Otsaiaren 6ko sariak



- Bi gonbidapen Donostiako **AQUARIUMa** bisitatzeko. (Saridun bakoitzarendako bi)

## EIBAR-MURTZIA

futbol partidua ikusteko sei gonbidapen.

(Saridun bakoitzarendako bi)





## Hamarrekoa

JESUS ALBERDI, 'EGILEOR' | BERTSOLARIA

### "Urtetik urtera basurde gehiago daude hemen; aurten 24 harrapatu ditugu"

Oihana Elortza

**1. Bertsolari batek hartzen du inoiz erretiroa?** Ahal duen artean ez, baina gu ez gara lehen beste ibiltzen orain, toki gutxiagotara joaten gara. Hala ere, konfiantzazko tokira trankil joaten naiz ni. Gazteek ematen didate errespetua; azkarrak dira, errima aberatsa dute eta erraz egiten dute bertsotan.

**2. Ez da bertsotan berdina egiten lehen eta orain?** Gai asko ere ezberdinak dira, eta bestetik, gazteek duten abildadea ikusgarria da.

**3. Araban ikasi zenuen espainolez?** 14 urte nituenean joan nintzen urtebeterako, eta 13 hilabete egin nituen. Orduan jende asko joaten zen hara espainolez ikastera; Elosukoak ere hiruzpalau egon ziren eta ni Osintxuko hiru anaiaren ostean joan nintzen. Harrezkero ere joan izan naiz hara bisitan. Ni izan nintzen joan zen azkena; gero espainola etorri zen hona.

**4. Endredoa edo pozgarria da elurra zuretako?** Endredoa. Elurra egitea komenigarria izaten dela


diote, baina nik ez egitea gura dut, kalean, behintzat.

**5. Egia da lehengo elurteak gogorraoak zirela?** Bai, horixe. Lehen, markak egiten genituen gauean, eta goizerako markatik gora zegoen elurra eginda. Elurte handiagoak eta luzeagoak ziren.

**6. Urte erdia Elosun eta beste erdia Bergaran pasatzen ei duzu.** Bai, artzainen antzera ibiltzen gara emaztea eta biok. Maiatzean joaten gara Elosura, baserrira, eta negu hasieran Bergarara jaisten gara. Altu dago Elosu eta negua gogorra izaten da han.

**7. Joaten zara ehizara oraindik?** Basurdetan ibiltzen koardrila batekin. Aurten, 24 basurde harrapatu ditugu eta otsaila pasa arte jarraituko dugu. Kanpanzar aldean ibiltzen gara eta konturatu naiz urtetik urtera gero eta basurde gehiago daudela hemen. Okela izozkailuan gordetzen dugu, tarteka afariak egiteko.

**8. Ospatzen dituzu San Blas eta Santa Ageda?** San Blas ez, baina 40



XABI URTZELAI

Errege Egunean 75 urte bete ditu Jesus Alberdi *Egileor* bertsolariak. Erregeek ekarri zutela esan zioten gurasoek txikitari, eta horixe sinistu zuen 12-13 urte egin zuen arte. Barre egiten du orain. Zapatuko bertso egunera Azpillaga bertsolariarekin batera joan zen saioan parte hartzera. Elosun jaio zen, eta orain, urte erdia egiten du han eta beste erdia Bergaran.

urte baino gehiagotan ibili naiz Santa Ageda eskean; duela hiru urte utzi nuen.

**9. Telebistan eta irratan entzuten dituzu bertsoak?** Arrate Irratiko ber-

tsuak entzuten ditut gustura eta telebistan ere ikusten ditut.

**10. Gidatzen duzu?** Bai, baina ez naiz ausartzen ondo ezagutzen ez ditudan tokietara joaten.



**Biharamuna**

Edu Mendibil

## Fidelismoa eta Reala

Orain justu urtebete, aldizkariko txoko honetan, lagun batzuen ezkontzaren berri eman nizuen. Egunotan bezala elurra orduan ere eta epeletara, Kubara joan ziren eztei-bidaia egitera. Karibeko postaltxo bat agindu zidaten orduan. Baina urtebete pasatu da eta postalaren arrastorik ez: bankuko agiriak eta publizitatea besterik ez postontzian. Tira, albiste onak ere bai... Alabatxoa izango dute lagunak laster. Jada postala jasotzeko itxaropenik ez daukat. Olentzeroren zakura joango dira galdutako postalak? Ala **Fidelen** fidelek galbahetik pasatuko dute posta?

Sozialismoa baino, *fidelismoa* indarrean omen dago Kuban. Eta komandantea falta denerako zer gertatuko den aztertzen ari dira hango eta hemengo analistak. Abuztuan 80 urte egingo ditu Castrok. Inork beteko ez duen hutsunea heltzen denean, kubatar guztiak bat eginda egin beharreko lana izango dutela azpimarratu dute hango agintari gazteek. Era berean, eredu izango den lidertza, soiltasunak ematen duen autoritatea, lanerako grina eta agintarien pribilejiorik eza beharrezkotzat jo dute. Herriaren gehiengoaren laguntza ere ezinbestekotzat jo dute Fidelen atzetik datozenek.

Gai serioak utzi eta domekako futbol kontuetara etorri, Alavesek etxeko lehen partidua irabazteko Reala joan behar izan da Gasteizera. **Amorroturenak** egin du. Iraultzaren iraultza behar dugu Realean ere.

**smsoinu**  
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

**SOINUAK:** Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA  
**ABESTIAK:** Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA  
**LOGOAK:** Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA  
**JOKOAK:** Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

**5767**  
zenbakira

Deiaren prezioa:  
**1,2 € + BEZA**



**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

**OHARRAK**

**1. BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: [www.smsoinu.com/bateragari](http://www.smsoinu.com/bateragari)  
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.

**2. BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuko, jarri zaituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Ki jaisiera bakarrik ordaindu behar duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sistemaren alta ematea doan dira.  
\* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora. \*\* Vodafone: deitu 123-ra. \*\*\* Movistar: deitu 609-ra.

**3. ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: [smsoinu@smsoinu.com](mailto:smsoinu@smsoinu.com) / edo deitu **902 01 21 48** telefonora.

**4. PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratuta eta erabiltzaileek eskura dezatela nahit baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu **902 01 21 48** telefonora.

**ABESTIAK** POLIFOIKOAK (SMS 1) Abestiaren izena (Abestiaria) | KODEA

**Himnoak**  
Eibar | EIBAR  
Athletic Club | BILBAO  
Osasuna | OSASUNA  
Reala | REAL

**Pop-Rock**  
Aitorrena | AITORMENA  
Aizkolari | AIZKO  
Amore amore | AMORE  
Begiak okertuta | BEGIAK  
Bi Minutero | BIMINU  
Dub manifest | DUB  
Eguzker | EGUNERO  
EH Sukarra | SUKAR  
Ez dican merda, nosotro amon | ELLOS  
Enamorado de la muerte | ENAMO  
Etorzikuna | ETORKI

Ezer ez da betiko | EZER  
Gora Herria | GORA  
Hator Bel-Air | BELAIR  
Haizea | HAIZEA  
Hegal egiten | HEGAL  
Ikusi | IKUSI  
Kargia | KEN  
Inperuaren ate joko | INPER  
Jokin Urain Hitzak | JOKIN  
Kaixo | KAIXO  
Lau Teikatu | ITOIZLAU  
Laztana | LAZTA  
Lotuta egon arren | LOTUTA  
Loretxoa | LORE  
Marea Gora | MAREA  
Musturrek sartunde | MUSTURREK  
Nicaragua | NICA  
No time for love | NOTIME

Salve | SALVE  
Sari Sarti | SARRI  
Sorgin leizean | SORGIN  
Txaboi | TXABOI  
Txus | TXUS

**Trikitixa**  
Bexamela ta pastela | BEXAMELA  
Bokespok | BOKESPOK  
Hik lan eta nik jai | HIK  
Itsas ontzi baten | ITSAS  
Kupela | KUPELA  
Mila galdera | MILA  
Nirekin | NIREKIN  
Ny Hirahira | NY  
Txanpon baten truke | TXANPON

**Folk**  
Arratsalde honetan | ISOROTAN  
Bai euskarari | BAI  
Bakezaleak | BAKEZALEAK  
Bizkaia Maite | BIZKAIA  
Eperak | EPERRAK  
Euskal Herrian | EUSKAL  
Euskaldun herriaren | EUSKALDUN  
Ez da posible | EUSKALDUN  
Furra | FURRA  
Galizara noa | GALIZARA  
Gernikako Arbola | GERNIKA  
Haika Muri | HAIKA  
Izarren hautsa | IZARREN  
Lepoan hartu ta | LEPOAN  
Marinelaren zai | MARINE  
Nere herriko neska | NERE  
Non geratzen den denbor | NON

O! Ama Euskal Herria | OIAMA  
Tirauki | TIRA  
Txabamabaitzabai | TXATXA  
Txoria txori | TXORIA  
Zaindu maite duzun hori | ZAINDU  
**Herrikoia**  
Bagare | BAGARE  
Desde Santurce a Bilbao | DESDE  
Ikusi Mendizaleak | MENDI  
Pintxo-pintxo | PINTXO  
San Simon eta San Judas | SAN  
**Jaietakoak**  
Artilleria dale fuego | ARTILLERO  
Marijia | JAI  
San Fermi | FERMIN  
San Martzialako alardea | SAN MARTZIAL

**SOINUAK (2 sms)**

Soinu izena | KODEA

1,2,3,4...Real! | REAL  
Athletic leup!! | IEUP  
Buztan bertsoa | BERTSO  
Hartu... Aitaren ta semea... | AITAREN  
Hartu... Ansar | ANSAR  
Hartu... Argentinara | ARGEN  
Hartu... Mexikarra | MEXIKO  
Hartu... Miamol | MIAMOL  
Independentsial | INDEPEN  
Irrintzia | IRRINTZI  
Jotake irabazi arte! | JOTAKE  
Milazu! (pilota) | MILAZU  
Txalaparta | TXALA  
Txoxtx | TXOTX

